

Katakrak argitaletxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

GATAZKA ETA ABUSUA EZ DIRA GAUZA BERA

Laura Macaya eta Hamaca

GATAZKA ETA ABUSUA EZ DIRA GAUZA BERA

Laura Macaya eta Hamaca

Hitzaurrea: Itziar Ziga

Itzulpena: Amaia Astobiza Uriarte

Jatorrizko izenburua (2023): *Conficto no es lo mismo que abuso*

Egileak: Laura Macaya eta Belén Soto (Hamaca)

Jatorrizko lizentzia: Creative Commons 4.0: CC-BY-SA

Itzulpena: Amaia Astobiza Uriarte

Hitzaurrea: Itziar Ziga

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2025eko apirila

Edizioa eta maketa: Katakarak Liburuak

Kale Nagusia 54-56 / Calle Mayor 54-56

31001 Iruñea-Pamplona

editorial@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza jaso du



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomerztiala-Lan EratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-10316-09-6

ISNI: 0000 0005 1330 6065

Lege gordailua: NA 744-2025

Inprimaketa: Alzate Grafikak

Aurkibidea

HITZAURREA (Itziar Ziga).....	9
1. PUNITIBISMOA	23
2. SEXU-INDARKERIA	37
3. ZIS GIZONIK EDO ERASOTZAILERIK EZ DAGOENEAN	73
4. KANTZELAZIOAK.....	83
5. KASU INSTITUZIONALAK	105

Hitzaurrea. Elkarrizketaren heresia

Zalantzan jarri behar dugu zergatik esaten duten behin eta berriro emakume zuri, kultu eta materialki pribilegiatuek, ikasketak eta bizitzeko era hautatzeko garaian askotariko aukerak dituztenek, ezinezkoa dela sufrimendua neurtzea. Sekula ez diot halakorik entzun ezein arrazatako emakume pobre bati.

bell hooks

Garai nahasiak bizi ditugu, eta, ibilbide luzeko feminista askorentzat, baita gazi-gozaok ere. Alde batetik, duela gutxi Gloria Steinem-ek zioen bezala bere 90 urte baikorretatik, gaur egun patriarkatua ahu-lagoa da, jada ikusezina ez izatea lortu dugulako. Beste alde batetik, ahots feminista bakar bat eraiki da, eta ahots hori, berrarmatze ultraeskuindarraren aitzakian, barrurantz begira jarri da, ahoak itxiaraziz

eta armarik okerrenak astinduz, nagusiaren armak: punitibismoa, antagonismoa, esentzialismoa, indibidualizazioa eta bertikaltasuna. Bidegurutze horretan, liburuxka bikain hau probokatzailetzat jotzen da, eta horregatik dugu beharrezko. Ekin diezaio-gun...

Espainiako Zigor Kodea, zeinari oraingoz loturik jarraitzen baitugu, gogorra da Europako testuinguruan, baina, batez ere, sexu-delituei dagokienez. Batzuetan, urte-kopuru bereko kartzela-zigorrak ezartzen dira, baita gehiagokoak ere, bortxatzeagatik eta hiltzeagatik. Zigorrari dagokionez bortxaketari ematen zaion gehiegizko garrantzi hori emakumearen ohore patriarkalaren urraketatik dator, eta emakumearen ohoreak ez zuen ikustekorik ezer gure gorputza gurea izatearekin, alderantziz baizik. Jakin badakigu Artemisia pintore barroko jeniala bortxatu zutela, baina ez bortxatu zutelako, baizik eta bere aitak erasotzailea auzitara eraman zuelako, familia laidoztatu ez zedin eta Artemisiak ezkontzeko aukera izan zezan, eta hartara ez zezan bere izen ona erabat galdu.

Tradizio izugarri horretatik gatoz, non esaten baitzaigu gure alua sakratua dela eta, beraz, ez dela gurea.

Mendez mende errepikatu digute emakumeari gerta dakiokkeen gauzarik okerrena dela bortxatua izatea, eta kezkagarria da nola azken garaiotan feminismo oso goretsi bat ere ideia hori zabaltzen ari den. Baldin eta gizarte patriarkalizatu batean bizitzeagatik zaila bada emakume batek bere bizitzan zehar sexu-erasoren bat ez jasatea eta gerta dakigukeen okerrena bada sexualki erasoak izatea, zer mundu kaka ari gara marrazten neskatoei? Jakina, Espainia-ko Zigor Kode horretan egindako azken aldaketei esker —zeina aurretik zorrotza baitzen eta orain are zorrotzagoa baita, feminismoaren izenean—, gaur egun edozein keinu sexualki inbaditzaile eraso bat da legearen arabera, eta, salatuz gero, eraso gisa zenbatuko da. Nire ustez, ideia txarra da izu sexuala are gehiago hauspotzea.

(Ustezko) Sexu-erasotzaileen aurkako kasu ultramediatikoek zalaparta handia ekartzen dute berekin, eta ematen du zaila dela pentsatzea; batez ere, beste iritzi bat dugula adieraztea kostatzen da. Lintxamenduen aurka gauden feministok feminismoaren izenean lintxatuko gaituzte: niri orain berriro hori egitea, tira, ez zait batere axola, baina ikaragarria da mugimendu eraldatzaile batentzat. «Gurekin ala gure kontra» horrek ezin du izan indarkeriaren aur-

kako dinamika bakarra, eta ez da, noski. Horregatik eta askoz gehiagogatik, aringarria eta inspiratzailea da eskuartean taupaka duzun liburuxka hau.

Laura Macayak eta Hamacak gaurkotasun handiko gaien inguruan dihardute, eta haietan argi egiten dute. Zer esan nahi du biktimen alde egoteak? Lagun egiteko modu bakarra ote dago, eta noraino laguntzen da hasierako ezandaren ondoren? Ez ote dira sinesgaiztasuna eta itsu-itsuko sineskortasuna jarrera maila berean arduragabeak? Betiko baztertu behar al ditugu emakumezko kideek erasotzailatzat jotako guztiak, berdin gogaikarri jardun direnak zein bortxatu dutenak, eta gure kolektiboak suntsitu horretan dihardugun bitartean? Non dago justizia errestitutiboa, indar eraldatzaile feminista? Benera, ez al zaigu beste modurik bururatzen gatazkak kudeatzeko, are abusuak, estatuaren zigor-estrategiak kopiatzea baino, botere-harreman patriarkal oro errepikatzen dituzten estrategiak? Zergatik jotzen da sexu-indarkeria emakumeok pairatzen dugun zapalkuntzarik handientzat, eta ez arrazismoa, lan-esplotazioa, pobrezia, bazterkeria edo indarkeria horietako asko eta beste batzuk aldi berean? Zer berresentziazazio binariorantz eta, beraz, ez-intersektionalerantz bultzatzen gaitu antagonismo

punitibista honek guztiak? Ez al dugu kontuan hartuko historian zehar emakumeen aurkako indarkeria behin eta berriro instrumentalizatu dela kontrol- eta esplotazio-sistemak sendotzeko?

Gatazka eta abusua ez dira gauza bera proposamen aberasgarria da, eta aukera ematen digu gehien behar duguna berriro sartzeko: komunitatea.

Itziar Ziga
Iruñean, 2025eko martxoan

Gatazka eta abusua ez dira gauza bera

Bizimodua beltz dago. Askok samurtasun eta arre-ta falta handia nabaritzen dugu, elkarri arduraz eta zintzotasunez entzuteko posibilitaterik eza. Gainera, oso ikaratuta gaude, eta gauza askori diogu beldurra; besteak beste, oker egoteari. Testuinguru horrek izugarri korapilatzen du enpatia, orobat desberdintasunean elkarrekin bizitzeko indarra. Zer nekeza den gatazkei aurre egitea eta liskarrak kudeatzea, ezta? Horrenbestez, joera dugu geure burua lagunartetik urruntzeko eta bakartasunera jotzeko. Bada diagnostiko gutxi-asko hedatu bat, alegia, zail gertatzen zaigula elkarrekin komunikatzea: nahiak, mugak, beharrak... Baina ez dugu behingoz ikasten nola egin. Disfuntzionaltasun komunikatibo hori, egoera deserosoak saihesteko joera, are ustekizun bitxi bat:

bai, eutsiko diogu, zeren gauzak berez konponduko dira (egiaz, beste batek konponduko du). Egonezin horiek pilatu egiten dira maiz, eta pilaketa hori hazi eta hazi egiten da, egun batean jo eta lehertzen dena arte.

Herritartasun espainiarreko eta zurtasuneko gure testuinguru feministan, sexu-indarkeria jotzen dugu gizarte-arazo larrienetakotzat, gehien bistaratu beharrekotzat, subjektibitate guztiei eragiten dielako. Sexu-indarkeriari buruz hitz egitean, argi dugu batez ere zis gizonek gauzatzen dutela. Zis gizonek jokabide erasotzaileak eta abusuzkoak dituzte behin eta berriro, eta horrek sekulako egonezina eragiten du; hortaz, errealitate hori aldatuko bada, guztiz ezinbestekoa da kulturalki ikasitako jarrerak eta rolak aldatzea. Nolanahi ere, arazo guztiak ez dira bikote-harremanetan gertatzen, eta pertsona guztiak ez dira zis eta heteroak. Denboran zehar, sexu-indarkeria mota desberdinak identifikatu ditugu, zis gizonek emakumetzat jo daitezkeen pertsona-kategoria zabal baten aurka —batez ere haien aurka— erabiltzen dituztenak; eta, indarkeria-mota horiei dagokienez, feminismoek autodefentsarako eta indarkeriok agerian jartzeko taktika ugari landu dituzte, dela modu autogestionatuan, dela esta-

tuarekiko erlazioaren bidez. Horietako batzuk justizia errestauratibo edo eraldatzaileari lotuta daude, edo zerikusia dute pedagogiaren, konpromisoaren eta ardura hartzearen bidez norbere burua berrera-tzeko aukera eskaintzen duten beste prozesu-mota batzuekin. Beste batzuek mendekuak, zigorrak eta kondenak dakartzate berekin: kartzelatzea, komu-nitatetik baztertzea, jendaurrean iraintzea, fisikoki errepresaliatzea edo kartzelazioaren kultura susta-tzea, adibidez. Une honetan, batzuek zein besteek presentzia handia dute mundu mailako komunika-zio birtualaren inguruneetan; biek ala biek bistara-tze-estrategia gutxi-asko arrakastatsuak sortzen di-tuzte —view-ak, jarraitzaileak, *engagement*-ak...—, eta *erasoaren aurkako erantzunaren* erreferentzia feminista bihurtzen dira. Nola edo hala, imajina dai-tekeen gizatxarrik okerrenea *erasotzailea* da, *mal-tratatzailea*, *bortxatzailea*. Buruan dugu irudia, eta guztiok ditugu irudi hori elikatzen duten hamaika istorio. Gaizkiaren irudikapenik handiena da, izuga-rriena, okerrenea.

Baina itzul gaitezen leku onargarriago batera, geure buruarekin identifika dezakegun toki batera, non ez baitaude zis gizonak ezinbestean: zu, ni, beti beran-du iristen den zure neska-laguna; haren neba, bada-

kizkigun kontuak azaltzen dituen; nire bikotekidea, gaur batere maitekor ez dagoena; zure ama, astun hutsa; nire gizonetzko lankidea, nire ustez niri dago-kidan mahaiaren zati bat ere bere egina duena... Egonezina pilatzen bazaigu eta lehertzen bagara, amorrak goitika egiten badigu eta ez badugu alda-menekoari entzuteko gogorik, nahi dugun bakarra bada hura barka eske etortzea eta gure exigentzie-tara makurtzea —zeren bestela are gehiago amorraraziko gaitu eta indar handiagoz eztabaidatuko dugu—, hainbat gauza gertatzen dira:

- (1) Egonezin-egoera horretan, ekintza oro bestearen gaiztakeriari edo arduragabekeriari buruzko aurrejuzgu jada itxi batetik interpretatzen da, eta, are gehiago, aurrejuzgu horrek aldatu egiten du guk gure bizipenaz dugun oroitzapena.
- (2) Ez gaude negoziatzeko prest, ezta gugandik harago eratzen diren kontakizunen konplexutasuna onartzeko ere.
- (3) Gure ustea gero eta sendoagoa eta ezeztaezinagoa da, eta ezinezkoa zaigu gugandik kanpoko ezein indarrek gertatutakoaren, gure erreakzioaren edo geure buruaz dugun irudiaren gaineko iritzia aldaraztea.

Nola eta gatazkak eta abusuak kudeatzen aritzen diren gure inguruko erreferenteek etengabe eta argi uzten duten *biktima bat* eta *erasotzaile bat* daudela —biktimaren aldera, enpatia, adeitasuna eta babesa

garatzen ditugu; erasotzailearen aldera, beldurra eta eraldatzeko exigentzia—, guk egoeraren biktimatzat jotzen dugu geure burua. Hori hala bada, bestea gure erasotzaile gisa jokatzeko ari da, eta, guk hautemandako minaren arabera, eta min hori zer-nola areagotzen den gatazkaren konponbidea korapilatzen den heinean, beste hori munstro bortxatzailearekin eta/edo maltratatzailearekin identifikatu ahal izango dugu. Eta zein dira taktikarik ikusgarrienetakoak, Mendebaldeko feminismoa gero eta autoritate handiagoa hartzen ari den testuinguru honetan? Hori argitzeko, aurreko paragrafoa itzul gaitezke.

Elkarriketa honen izenburua Sarah Schulman-en *Conflict is not abuse*¹ [Gatazka ez da abusua] liburutik hartu dugu; ikuspegi queerreko saiakera transeskalarrak bat da, eta azaltzen du minetik ihes egiteko, minak gainezka egiteko eta minari garrantzi handiegia emateko estrategia berak errepikatzen ditugula bai testuinguru mikroetako gatazketan —adibidez, harreman intimo bateko gatazka batean— bai testuinguru geopolitikoetakoetan —esaterako, Palestinako genozidioa—. Schulmanen ustez, «giza interakzioaren maila askotan aukera dago nahasteko

1 Sarah Schulman, *Conflict is not abuse*, Arsenal Pulp Press, 2016 Vancouver.

deserosotasuna eta mehatxua, barne-antsietatea eta kanpo-arriskua, eta, aldi berean, gatazka eskalatzeko, ez konpontzeko». Eta hauxe dio beste une batean:

Ez ditugunez gure historiak aldatuko beste pertsona batzuen arrazoi ezagunak horietan txertatzeko eta haiek ezagun ez dituztenak agerian jartzeko, ezinezkoa zaigu gatazkak produktiboki, ekitatiboki eta zuzentasunez konpontzea. Horregatik guk (banakoak, bikoteak, kide-tasun-taldeak, familiak, komunitateak, nazioak, herriak) maiz uste izaten, sinesten edo adierazten dugu, alabaina, gatazka abusua dela eta, beraz, zigorra merezi duela; hau da, beste pertsona batekiko desadostasun huts bat desitxuratzen da eta erasotzat jotzen, eta horrek gero gure ankerkeria justifikatzen du eta aldatzeko aukerari uko egitera bultzatzen gaitu. Hori dela eta, abusu-salaketa faltsu horri aurre egitea *zigorrez* moztarotutako krudelkeria are handiago baten justifikazio gehigarri gisa ulertzen da, kontu emateari eta konpontzeari uko egitearen oinarri ilogikoaren bidez.

Horrenbestez, testu honen helburua da ikasketarako ate bat zabaltzea, gure ustez gure gatazkei aurre egiteko eta haiek kudeatzeko modua hobetzen laguntzen duena: feminismo antipunitibista. Zorionez, gero eta eduki gehiago agertzen dira gure hizkuntzetan edo lege-esparru ez-anglosaxoietan, hala nola Espainiar estatuan. Haietako gehienek feminismo identitarioaren, espetheen eta trans pertsonengana-

ko edo sexu-langileenganako indarkeriaren arazoari lotuta heltzen diote antipunitibismoari. Gure solasaldiaren xedea da Sarah Schulmanen *Conflict is not abuse* liburuko zenbait proposamen oinarri hartzea eta horren bidez beste arlo giltzarri bat aztertzea, hots, harreman intimoak eta kantzeldazioaren kultura. Eremu horrek ere punitibismoaren eragina jasaten du, eta oraindik ere ez du hainbeste erreferente ingelesetik kanpo. Idatzi hau «Dimarts de vídeo» [Bideo-emanaldiak astearteetan] programan [Gatazka] eta [Abusua] ez dira gauza bera² izenburupean izan genuen ahozko solasaldiaren bertsio hedatu bat da.

2 [Gatazka] eta [Abusua] ez dira gauza bera saioa Hamaca-k antolatu zuen 2023ko azaroaren 14an, Bartzelonako Santa Mònica zentroan. Virginia García del Pino zuzendariaren *El jurado* (2012) filma eman zen, eta antipunitibismoari buruzko solasaldi bat egin zen Laura Macayarekin.

1. Punitibismoa

Hamaca (H)

Lehen galderari bide emateko, Sarah Schulmanen beste aipu bat irakurriko dugu:

Ez dute esaten «Hau da nik behar dudana; zuk zer behar duzu?». Negoiazioa edo adostasuna ez da jotzen oso arrazoizkotzat. Subjektuak eskuragaitz bihurtzen dira. Kurioski, portaera horrek, zeinak harreman intimoak deskribatzen baititu, zehazki deskribatzen du orobat nola tratatzen dituen AEBko estatuak emakume pobreak, eta erakusten du, berriro, eraikuntza intimoak dinamika sozial bihurtzen direla. Behar zuri eta aberatsen nagusitasuna, baita gizonen beharrianek emakume pobre, migratzaile eta ez-zurien beharrianen gainetik duten nagusitasuna ere, estatuaren ezaugarri da, eta nonahi ageri da.

Gaur-gaurkoz, estatuak justizia egiteko eta polizia-indarkeria antolatzeke ahalmena du. Jarrera punitibista batetik abiatuta, botere hori arazo sozialak konpontzeke baliatzen du. Behin baino gehiagotan azaldu duzu politika horiek ez dutela funtzionatzen eta, aitzitik, izatez bereziki zaurgarriak eta estigmatizatuak diren pertsonei —migratuak, putak, po-break...— kalte egiten dietela. Aipatu, mesedez, punitibismoari buruzko ideia nagusi batzuk, eta azaldu labur-labur zergatik ez den funtzionatzen ari.

Laura Macaya (LM)

Oso labur esanda, punitibismoa da jatorri soziala eta/edo egiturazkoa izateko jaidura duten problematiken konponbide gisa zigor-estrategiak lehenesteko joera, eta estrategia horiek, praktikan jartzean, onura baino arazo gehiago eragiten dituzte. Estrategia punitiboak aipatzen ditugunean, **normalean estatuaren adar hertsagarriaren parte-hartzeaz ari gara**, eta parte-hartze hori gauzatu ohi da zigorzuzenbidearen, jazarpen polizialaren eta ikerketa judizialaren bidez. Europako ia herrialde guztietan eta AEBn, gero eta ohikoagoa da baliabide punitiboak lehenestea kutsu sozial, politiko edo ekonomikoko ia problematika edo gatazka ororen konponbide gisa; baina baita Latinoamerikan ere, eta hori esaten

ari dira azken urte luzeetan Argentinako, Mexikoko, Brasilgo, Ekuadorreko, Costa Ricako eta abarretako feminismoak.

Esan bezala, konponbide punitiboek hainbat arazo komun dituzte. Lehenik eta behin, ez dute balio delituak gerarazteko, ez baitute haien kausetan esku hartzen. Kriminologia kritikoak eta kriminologia kritiko feministak behin eta berriro nabarmendu dute ezein ebidentzia enpirikok ez duela erakusten zigorrak delituak egiteko asmoa kentzen duenik; hain zuzen ere, hori izango litzateke zigorrak legitimatzeko arrazoi nagusietako bat. Ez hori bakarrik: zigorra eta zigor-sistema kriminogenoak dira, hau da, delitua handitzen dute, kalteak eragiten dizkietelako pertsonen, haien afektuzko eta kidetasunezko harremanen, delituzko testuinguruetatik kanpo bizitzeko aukerei eta abarri. Genero-indarkeriaren kasuan, adibidez, delituak, zigorrak eta zainketa areagotzeko xedez zigorretan egin diren aldaketa ugariak ez dute ekarri aldaketa nabarmenik genero-indarkeria murrizteari dagokionez. Aitzitik, haren ikusgaitasun soziala areagotu dute, baina ondorio maltzurrekin; izan ere, zigorra ezartzen denean, modu zehatz batean bistaratzen dira arazoak, zigorraren beraren

esku-hartzea justifikatzeko; nolanahi ere, aurrerago hitz egingo dugu horretaz.

Punitibismoari gehien leporatzen zaizkion akatsen artean, hona beste bat: gaizki ulertzen ditu us-tez konpontzen dituen problematikak, eta horren adierazgarri nagusia da indibidualizaziorako joera erakusten duela kutsu sozialeko arazoei heltzean. Genero-indarkeria, berriz, zigorraren esparruari dagokionez, gizon gaiztoen eta emakume onen arteko arazo huts gisa planteatzen da: oinarri estrukturala ezabatzen da, eta, era berean, esentzializatu egiten dira patriarkatuak maskulinitasunari eta femeninitasunari atxikitzen dizkion ezaugarri normatiboak. Joera indibidualizatzaile horren bidez, arriskua partikular bihurtzen da, hau da, norbanako bakarrarekin lotzen da, eta, hala, balirudike gure antsietateen eta ondoezen kausak pertsona batzuen edo zenbait pertsona-talderen eraso zehatzei lotuta daudela, zeinak, gainera, politika punitiboen garagune diren gaur egungo testuinguru neoliberaletako lerratze klasista eta arrazistekin markatuko baitituzte. Hartara, estatua erantzukizunetik libre geratzen da; gatazkako aktore neutro gisa azaltzen da, eta kapitalismoari, arrazismoari eta sexismoari laguntzen dieten legeen bidez indarkeriarekin duen elkar hartzea

ezkutatzen du; eta ezkutatzen du, halaber, estatua-
ren beraren indarkeria, zeinak emakume askoren
bizitzari eragiten baitie, baita genero-disidente di-
ren pertsona ugarirenari ere, norbanakoen erasoek
baino askoz modu larriagoan. Esan nahi digutena
da baietz, antsietateak eta estresak jota eta gaixo
gaudela baina gure ondoezen jatorrian ez daude-
la gure bizitzak muturrik gorrieneraino prekarizatu
dituzten politikak, gure balizko lotura komunitario
guztiak eten dituztenak... «Emakumeok honengatik
zaudete histeriko: mehatxu egiten dizuen jendeare-
kin topo egiten duzuelako kale-bazter guztietan eta
Tinderr-eko edozein solasalditan... Eta tira, oro har,
burutik oso sano ere ez zaudete...».

Hortik guztitik punitibismoaren beste arazo han-
dietako bat ondorioztatzen da: oso selektiboa da.
Zigor-sistemak ez du berdin jokatzeko bizigune guz-
tiekin (auzoak, lurraldeak), eta, gainera, zigor zorro-
tzagoak jartzen dizkie pobreek gehien egiten dituz-
ten delituei. Ezaguna egingo zaizu errepresioaren
eta espetheen kontrako manifestan errepikatu dugun
lelo hau: «Aberatsak ez dira inoiz sartzen, pobreak
ez dira inoiz irteten!». Bada, horixe da adierazi nahi
duguna. Gainera, gero eta gehiago da hala; izan
ere, eta batez ere, delituak eta zigorrak areagotzeaz

gain, pertsonak gero eta denbora gehiago igarotzen dute espetxean edo zaintzapean, zaila delako gradu irekiak lortzea eta segurtasun-neurriak automatikoki aplikatzen direlako; adibidez, zaintzapeko askatasuna sexu-indarkeriari lotutako delitu batzuetan. Hala, punitibismoak gure gizarte neoliberaletako klasismoa eta arrazismoa errepikatzen ditu, eta jende-talde zehatz batzuk kontrolpean eta zaintzapean izateko balio du.

Orain arte adierazi dugu zertarako ez duten balio punitibismoak eta zigor-sistemak; beraz, adieraz dezagun orain zertarako balio duten. Zigorrarekin mehatxatzeak balio du otzan-otzan jarrai dezaten jende-talde prekarioenak eta baztertuenak; edo soldata-erregimenak, testuinguru hiperesplotatuetan; edo laguntza baldintzatuen gizarte-babeseko sistemak, hutsaren hurrengo diren dirulaguntzen truke portaerak kontrolatzeko erabiltzen dituztenak. Jende-talde pobreen eta errebeldeen biziraupen-jarduerak kriminalizatuz, otzan eta esaneko izatera bultzatzen dira berentzat gorderik dauden geruzetan: bigarren mailako langileak edo estatuak —gero eta gutxiago eta okerrago— lagundutako jende-masa baltiaezina. Geruza berean daude genero-indarkeriaren biktima pobre eta baztertuak, zeinek, baita lege-

rik aurrerakoienetan ere, biktima-estatusari lotutako laguntza baldintzatuak jasotzen baitituzte. Laguntza horiek akuilu dira kontrolatzeko pertsona horiek biktima onaren paperera egokitzen direla, hau da, badirela ama onak, emazte onak eta abar, eta elementu horiek balio dute estandar zuri, burges, hetero eta adeitsuetara egokitzen ez diren emakumeak kriminalizatzekeo...

Esaten da punitibismoak, oztopoak oztopo, biktimak babesteko balio duela. Baina hori faltsua da errotik. Zigor-sistemak, biktimak ez babesteaz gain, kriminalizatu ere egiten ditu maiz, batez ere emakume arrazializatuak, pobreak, putak, transak eta ez-normatiboak. Gainera, babesari lotutako espektatiba faltsua sortzen du, eta horrek baliogabetu egiten ditu ahalmen kolektiboa eta autodefentsarako eta biziraupenerako baliabide propioak, estatuak eskainitakoez apartekoak. Eta, noski, auzi penalak biktimak birbiktimizatzen ditu; izan ere, indarkeria-egoeretan jartzen ditu, haren helburua ez baita haiek babestea edo kaltea erreparatzea, baizik eta delitua pertsegitzea eta arau-hauslea zigortzea.

Zoritxarrez, feminismo batzuek bide punitiboa area-gotzen lagundu dute, eta zigorrak eta delituak area-

gotzean ardaztu dute emakumeek jasaten duten indarkeriari eta bidegabekeriari aurre egiteko estrategia politikoa. Eta beste modu batean ere lagundu dute, alegia, estrategia horiek berak errepikatuz komunitate politiko edo afektiboen testuinguruetan: inposatuz *escrache*-ak, erbesteratzeak, kaleratzeak eta terapia gainbegiratuak.

Gainera, punitibismoa ezin da aztertu soilik bere alderdi materialetik, zigorren aplikaziotik eta jende-talde pobreak gizartean zehar banatzeko duen funtziotik. Horri guztiari begiratzeaz gain, beste alderdi hauei ere erreparatu behar zaie ezinbestean: batetik, dimentsio sinboliko eta kulturala; bestetik, zapalkuntzaren bidez *on sozialaren* eta *gaitz sozialaren* esanahi kolektiboak eta subjektibitate otzanak sortzeko gaitasuna. Pertsona batzuek, punitibismoarekin kritikoak izanda ere, nabarmentzen dute lege penala oso baliotsua dela genero-indarkeriaren gaiztotasuna jendartean zabaltzeko. Egia da Zigor Kodean portaera bat gaitzesteak beste ezein eskuhartze publiko edo pribatuk baino indar handiagoa duela gizartean. Nolanahi ere, ez dut uste xede horrek justifikatzen duenik zigor-sistemak pertsona pobre eta estigmatizatu gehienei, emakumeak barne, sortzen dien oinazea, eta ez dut uste zigorra baliatuz

indarkeriari ikusgaitasuna ematea guztiz eraginkorra denik, argi egiaztatzen ari garenez. Egia esanda, uste dut arazoa honako hau dela, Tamar Pitch-en hitzak erabiliz: «Punitibismoan, konponbideak arazoa eraikitzen du».³ Hau da, zigorrak gaitz sozial gisa ikusarazten du genero-indarkeria, baina ez edozein modutan; koordinatu jakin batzuk eta protagonista zehatz batzuk dituen arazo gisa aurkezten du, eta, bestalde, zigorraren existentzia justifikatzen du, eta esku-hartze punitiboa legitimatzen. Horrela, estatuaren hertsapen-sistema ezinbesteko bilakatzen da arrazionaltasun neoliberalak babesteko, eta genero-indarkeria —fenomenoa eta protagonistak— ulertzeko modu zehatz bat sortzen da, zigorraren interesentzat baliagarria dena.

Genero-indarkeriaren eta horren biktimen eraikuntzaren adibide bat jarriko dugu, hau da, zigor-sistemaren interesentzat baliagarria den eraikuntza batena, eta, horretarako, gaur egungo joera bat aipatuko dugu: *indarkeria* hitza edozein desberdinkeria-, diskriminazio- eta sexismo-zantzu izendatzeko erabiltzen da. *Indarkeria* kontzeptuaren erabilera

3 Hori dio Tamar Pitch-ek «Feminismo punitivo» artikuluan, liburu honetan: *Los feminismos en la encrucijada del punitivismo* (argitaletxea: Biblos, 2020; koordinatzaileak: Deborah Daich eta Cecilia Varela).

oso hedatua dago, eta halaxe deitzen zaie intentsitate txikiko ekintzei —begirada bat, setakeria bat— eta nik indarkeriatzat jo ere egingo ez nituzkeen jokabideei, hala nola txiste bat, iruzkin sexista bat edo gorputzen edertasunari lotutako exigentziak. Kategoriak erabat nahaspilatzen dira, eta baliogabetu egiten dira estrategia askoz erabilgarriagoak, izaera eta intentsitate aski desberdineko fenomeno guztiei modu berean heldu nahi dieten estrategiak baino askozaz ere baliagarriagoak. Horren ondorioz, *indarkeria*-kasuak neurrigabe areagotzen dira, zenbait feminista historikok ondo azaldu bezala; adibidez, Raquel Osborne-k⁴ eta, berrikiago, Catalina Trebisacce-k. Haien ustez, benetako gailu performatikoez, hau da, kopuruek, *hautemandako errealtate bat* eratzen dute, «chou tanatokratikoak»⁵ justifikatzen dituenak: gogora ekar ditzagun zenbait lelo, hala nola «hiltzen gaituzte», «hau gerra bat da» edo «larrialdi feminista», irrazionaltasuna eta kontserba-

4 Raquel Osbornen testu hau idatzi zuen 2008an: «De la “violencia” (de género) a las “cifras de la violencia” ». Garai hartan, jada, genero-indarkeria areagotzearen eta politika feminista batzuek hori estrategikoki erabiltzearen ondorio maltzurak aztertu zituen.

5 Ideia horiek artikulu honetan daude jasota: «Los feminismos entre la política de cifras y la experiencia en violencia de género» (*Los feminismos en la encrucijada del punitivismo*, 2020).

durismoa sustatzen dutenak eta, horrekin batera, zigorren aldeko erabateko lerratzea eragiten dutenak.

Larrialdiari lotutako jarrera horiek ideia zehatz bat zabaltzen dute jendearen artean: segurtasuna zera da, pertsonen artean erasorik ez izatea —nahiz eta emakume askok ezin duten etxebizitzarik eduki eta askori paperak eskatzen dizkieten kaletik doazen aldiro—. Horrek feminitatearen rol klasikoetara itzularazten ditu emakumeak. Indarkeria kontzeptua neurriz gain erabiltzeak eta larrialdiak beldurrak akuilatzen dituzte, eta kontserbadore eta puritano bihurtzen gaituzte; horregatik dira egokiak diskurtso horiek, zeinek, askotan feminismotik beretik, emakumeak *esentzialki* biktimatzat jotzen baitituzte. Ondorioz, emakumeak honela eraikitzen dira: arduragabe, harreman sexualekiko beldurti, oinazearekiko hipersentikor eta muga eta negoziazio sexualak ezartzeko ezgai —eta halaxe ikusten dituzte besteek, eta halaxe ikusten dute beren burua—.

Horrek guztiak, noski, badu osagarri bat: erasotzailea munstro aseezin gisa eraikitzea, pizgarri bakar menderatzaile izatea duena, hausnarketarako eta elkar aditzeko aukerarik ematen ez duena. Horrenbestez, bai indarkeria bera bai indarkeria horren

protagonistak ulertzeko molde horrek genero normatiboa sortzen du, eta kudeaketa komunitarioa eragozten, monopolizatu egiten delako bai indarkeriaren zergatia bai estatuak indarkeria horri eskaintzen dion arreta; eta guri adierazpen-politikak garatzeko aukera soilik uzten digute, non gure misioa baita, indarkeriaren kausei heltzea baino gehiago, emozio handiz eta irrazionalki adieraztea krimenak eta haien egileek eragiten diguten haserrea, gorrotoa eta mendeku-nahia.

Beraz, ikusten dugunez, feminismo batzuetatik txalotu egiten da zigorrak, delituak eta kartzelatzeak areagotzea, eta estatuarekiko adiskidantza gaiztoak sortzen dira berririo, politika feminista joera punitiboko legeak sortzean zentratzen delako. Bestalde, batzuetan, aurretiko asmorik gabe eta zuzenean eskatu gabe, punitibismoa bultzatzen da, eta, hala, zigorra legitimatzen duen subjektibitate femenino eta maskulino bat sortzea sustatzen da. Historikoki, feminismoek mesfidantzaz begiratu izan diote beti emakumeen eta pertsona disidenteen aurkako bigabakerien konponketan estatua eta haren zigorerakundeak sartzeari. Feminismoek uste zuten estatuak emakumeen, haurren eta pertsona disidenteen aurkako indarkeriak sortu eta errepikatzen zituela,

eta halaber uste zuten erakundeak botere patriarkalaren bizkarrezurra zirela eta kultura androzentriko eta heterozentrikoa sustatzen zutela. Zoritxarrez, azken urteetan gero eta kontakizun gehiago daude zigorra legitimatzen dutenak, eta feminismoak eta haren aldarrikapenak, adierazpen-molde batzuetan, estatuaren beraren zerbitzura jartzen ari dira.

Hortaz, **feminismoa antipunitibista** izango bada, nik botere punitiboari buruz planteatu ditudan bi dimentsioei erantzuteko gai izan behar du: alde batetik, zigor-sistematikiko kritika eta haren ezinbesteko abolizioa; bestetik, zigorraren kulturarekiko eta haren subjektibitate paradigmatisatukoekiko kritika. Clementine Morigan-ek dioen bezala, «ezin duzu oihukatu "harrotasuna matxinada da" edo "behera kartzeletako hormak", eta gero poliziarena egin zure kide eta lagunekin».⁶ Eta gehituko nuke: «Ezta ezezagunekin ere».

6 Clementine Moriganek kartzelazioaren kultura kritikatzan duten tes-tuak zabaltzen ditu bere Instagram kontuan (@clementinemorigan).

2. Sexu-indarkeria

(H)

Duela aste batzuk, emakume bisexual batzuen eta gizon marika batzuen arteko elkarrizketa bat entzun nuen taberna bateko terraza batean. Tinderreko lehen hitzorduetan bizi izandakoak azaltzen ari ziren, alegia, aurretik ezagutzen ez zituzten zis gizonekin intimitate sexuala izan zuten uneetakoak, eta kon-tatzen zuten nola zerbait zehatza egin edo jaso nahi ez zutela adierazi arren gizonak berdin-berdin egin zutela —adibidez, lepotik helduta ito, edo haien ahoetan korritu—. Denek adierazi zuten beldurra ematen ziela pentsatzeak zer gehiago egingo ote zien hala portatzeko gai den pertsona batek hari aurre egiten saiatuz gero, eta horregatik ez zutela ezer esan gertaeren ostean. Are gehiago, sexu-harrema-

na izan ondoren gizon horiekin lo egin zuten, eta hurrengo egunean agur esan zieten, normaltasuna erakutsiz. *Contra el fascismo, no olvidemos la belleza*⁷ [Faxismoaren kontra, ez dezagun edertasuna ahaztu] saioa argitaratu genuenean, Blanca Ariasen hitz batzuk aipatu genituen:

Adostasunaren kultura bat eraikitzeko, ezinbestekoa da arreta trebatzea. Ohituta bageunde xehetasunak hautematen, batez ere keinuak (gorputzarekin eta berehalakotasunarekin lotuago dagoen komunikazio batekin zerikusia dutelako), ez genuke ezer galdetu beharko sexu-harreman adostuak izateko, zeren eta pareko gorputzak begiradarekin, arnasarekin, eskuekin, jarrerarekin esango liguke egoera horretan egon nahi duen ala ez. Galdetu behar izatea norbaiti gurekin larrua jo nahi duen ala ez, azkenean, indarkeriaren kulturaren emaitza da, horrek ez baitu ulertzen leuntasunaren hizkuntza.

Besteen desiraren —edo horren gabeziaren— seinaleak atzemateko ezintasuna nabarmentzen ari zen Blanca. Baina aurretik aipatutako lagunek azaldutako kasuetan beste gauza batzuk gertatzen dira: pertsona batek beste pertsona baten desiraren kontra eta haren gainetik jartzen du bere desira, eta bigarren pertsona hori ez da gai bere beharrak defendatzeko.

7 Saioaren testua (2023ko irail-abendua) hemen kontsultatu daiteke: hamaonline.net/projects/contra-el-feixismo-no-oblidem-la-bellesa/.

(LM)

Entzun zenituen horiek indarkeria-ekintzak eta erasoak dira. Hertsapenezko testuinguru batean, zaurgarriago eta hertsatuago sentituko gara, eta indarkeria okertu eta errepikatzen duten jarrerak hartuko ditugu maiz, eta ezin izango diegu gure desirei kasu egin, zigorraren kulturak eragindako beldurrengatik. Sexu-erasoei dagokienez, biktimak gehiago ahaldunduko dituzten kontakizunak izan behar ditugu eskura, eta, horretarako, ezinbestekoa da agerian jartzea sexuaren apartekotasuna estatus eraiki bat dela, orobat emakumeen gorputz-atalen hierarkizazioa eta horiei ematen zaien garrantzia.

(H)

Lagun-taldeak bizipenak elkarri kontatzen jarraitu zuen. Emakume bisexualetako batek adierazi zuen zis gizon batekin geratu zela sexu-harremanak izateko. Hasi aurretik, emakumeak azaldu zion menderatzea gustatzen zitzaiola. Gizonak erantzun zion menderatua izan nahi zuela. Larrua jo zuten, lo egin zuten, musu batekin elkar agurtu zuten. Ordu batzuetara, emakumeak mezu bat jaso zuen: «lrudipe-na dut bortxatu egin nauzula». Handik gutxira, beste emakume batek beste istorio bat kontatu zuen: jai batean zegoen, mutil batekin musuka aritu zen, eta

dantzan jarraitu zuen; gero mutilak handik alde egin nahi izan zuen musukatzen jarraitzeko, baina berak ez zuen nahi izan, nahiz eta ez zuen jakin ezetz esaten. Mutilak dantzatik atera zuen behin eta berriro, berak gogorik gabe musukatu zuen; azkenean, emakumeak etxera joatea erabaki zuen, burua lainopean zuelako eta oso gaizki sentitzen zelako. Bigarren kontakizun horrek nire nerabezaroko gertaera berdin-berdin bat gogorarazi zidan, nahiz eta orduko hartan ez zen modu berean amaitu: lagun nuen neska bat eta mutil bat elkarrekin joan ziren etxera, eta hurrengo egunean neskak kontatu zidan oso pozik zegoela; eta, azkenean, zenbait urtetako harremana izan zuten. Horrelako kasuek «soilik bai da bai» legeari⁸ buruzko eztabaidak gogorarazten dizkirate.

(LM)

Berriro esango dut: nire ustez, zigorraren kulturak feminismoen bidez zabaldu duen gairik problematikoenetako bat **indarkeria kontzeptuaren hedapena** da. Teoria feministari dagokionez, batzuek genero-indarkeriaren izaera estrukturala ulertarazteko beharrarekin lotuz justifikatzen dute hedapen hori; haien ustez, ezinbestekoa zen erakustea indarkeria fisiko edo se-

8 10/2022 Legea, Sexu-askatasuna modu integralean bermatzeari buruzkoa.

xualaren bidezko eraso larriak beste mikrojakabide pila baten icebergaren punta zirela, eraso horien aurretik edo paraleloan gertatzen zirenak baina, hainbat, sistema ekonomiko, sozial eta sinboliko patriarkal beraren adierazpen zirenak. Praktika orok besteen existentzia babesten zuen. Alabaina, horrek hainbat interpretazio-arazo eta ondorio material ekarri ditu, zeren eta teoria feminista jarri da subjektibitate indibidualista neoliberalen eta analisi-esparru identitarioen zerbitzura, baita ezintasunean eta erresuminean oinarritutako politiken zerbitzuan ere.

Hasiera batean egitura sozialaren analisi makro bat zena pertsonen arteko harremanak aztertzeko eta jakabideak ebaluatzeko analisi-esparru gisa baliagarri izatera igaro da. Eta, hala, absurdoetan erortzen gara; adibidez, errotik moztu ezeari *delitua gero eta handiagoa* izango den logikari jarraituz —zeina oso ohikoa baita eskuinaren politiketan eta muturreko eskuin neoliberalen⁹—, iritsi gara pentsatzera kosta ahala kosta kubata batera gonbidatu nahi zaituenak gero bainugelan bortxatuko zaituela. Eta, horren

9 Gogoratu ditzagun drogen politika prohibizionisten justifikazioak: «Porro batekin hasi, eta heroinarekin amaitzen da; beraz, moztu dezagun errotik, gainzigtortu ditzagun txikizkako salmenta eta drogen kontsumo partikularra». Bistan denez, erraz imajinatu dezakegu zer ondorio izan zituzten eta zer jenderekin jokatu zuten ankerren.

bidez, neurritz gain aurre egiten zaie matxismoaren adierazpen txikienei, eta erasotzaileztat jotzen dira adierazpen horien egileak/egileok; eta, hau da okerreana, biktimatzat hartzen dira adierazpenon hartzaileak. Gaur egun, indarkeriaren biktimatzat jo zaitzakete morroi bat lerre-jarioka ibili zaizulako taberna batean, eta hori lotsagarria eta irrigarria da gutako askorentzat. Zer feminitate-motak onartzen du hori? Nork atsegin du biktima izatea, eta zergatik? Arazo larriagoak dauzkaten zer emakumek joko dute hori andre batzuei soilik gerta dakieken zerbait irrigarritzat? Zer pertsonak nahiago izango dute oлдартu, ohiko morroi gogaikarriari bultzada bat eman eta ahaztu, espazio berean egoten jarraitzeko aukera izanda gainera, gatazka gaindimentsionatu eta betiketuko duen protokolo bati laguntza eskatzera joatea baino? Nork igaro nahi du hainbeste denbora horrelako morroi bat jasaten eta salatzen? Nork euts diezaioke matxismoarekiko zero tolerantziari? Azkenean, irrigarria iruditzen zait...

Honetan guztian, argudio nagusietako bat sexualitatea eta sexu behartua izaten ari da: sexu-indarkeria agertzen den unean kluxe eta mamu esentzialista guztiak esnatzen dira, baita begirada hori gehien kritikatu izan duten feministengan ere. Berriz ere,

gorputz femeninoetan antzinatik markatutako minak azaltzen dira, egonezinaren eta beldur atabikoaren ondoretasun ia biologikoa, feminitatearen interpretazio esentzial eta deterministak, eta emakumeen gorputzen eta haien sexualitatearen balio patriarkalen naturalizazioa. Hori guztia dela eta, badirudi emakumeek nolabaiteko hipersentikortasuna garatzen dutela gorputzari eta sexualitateari dago kienez, eta beren bizipen sexuak beti idealak izan behar dutela.

Horren adibide da feminismo batzuen gaur egungo joera, ulertzen dutenak desirarik gabe larrutan egitea sexu-indarkeria mota bat izan daitekeela; beraz, ziurtzat jotzen dute desiraz larrutan egitea zerbait ideala dela, eta ahaztu egiten zaie desira ez dela zerbait purua eta batzuetan gauza izugarriak desiratu ditzakegula... Halere, desira sexu-harremanak izateko arrazoi ideala balitz ere, emakumeek sexu-desiraz guztiz bestelako arrazoiengatik egin dezakegu larrutan: diru-truke, droga-lerro baten truke, tentsio-egoera bat baretzeko, ikasgai bat gainditzeko, besteek desio gaituztela sentitzeko... Hori ideala edo ez-ideala izan daiteke, baina, zalantzarik gabe, ikusarazten du **gutako askok oso desberdin ulertzen ditugula gure gorputzak, gure aluak,**

gure ipurdiak edo gure zakilak, eta hori hala da zeren, feminismoak ere esan izan duen bezala, emakumeen gorputzei buruzko ideia sakralizatuak kontzeptu-sistema patriarkal baten arabera eraikita baitaude.

Kontzeptu horiei aurre egiteak desentzializatu egiten ditu zaugarri bihurtzen gaituzten kontakizun sakralizatuak, eragozten digutenak esploratzea eta esperimentatzea, nahiz eta horrek guretzat deserosoa edo desatsegina izan daitekeen egoera batera eraman gaitzakeen. Ez hain aspaldiko elkarrizketa batean, honako hau zioen Alexandra Kohan psikoanalista argentinarrak: «**Ergel batekin larrutan egitea ez da indarkeria**». ¹⁰ Eta hala da: morroi tentel, ganorabako eta enpatiarik gabeko batekin larrutan egitea ez da berez indarkeria, eta horrek ez du esan nahi ideala denik. Ez du esan nahi ezer egin behar ez denik. Blanca Ariasek dioen bezala, garrantzitsua da pentsatzea nola susta ditzakegun desira ulertzeko aukera ematen duten harremanak izateko moldeak —batez ere gizon zis eta heteroen kasuan—, axola zaigulako: beste pertsonaren desira ere presente egoteaz gozatzen dugulako, eta hori

10 Elkarrizketa hobetan izan zen: www.panamarevista.com/acostarse-con-un-boludo-no-es-violencia

geure gogobetetzeaz harago inporta zaigulako. Eta, jakina, ezerk ez du eragozten lerdo bati gauzak argi esatea edo hura iraintzea, zure etxetik kanporatzea edo muga bat jartzea. Hori *egin* egin behar da, baina orobat pentsatu behar dugu nola sor ditzakegun esparruak zailagoa izan dadin inor ergela izatea; eta, batez ere, beldurrak eta izuak hori egiteko gaitasuna kenduko ez diguten esparruak.

Bizipen desatseginak edo ez-desiratuak sexu atseginaren giza bizipenaren parte dira. Tamalez jada gure artean ez dagoen Dolores Julianok zioenez, sexu-harreman atsegin bat izateko, batzuetan, atseginak ez diren beste asko izan behar dira. Baina hori eta eraso bat ez dira gauza bera. Zoritxarrez, badirudi feminismo batzuek adierazi nahi digutela emakumeok bi aukera ditugula, sexu ideal eta atsegina edo indarkeria, eta hor sexualitateak berekin dakartzan ñabardura guztiak eta konplexutasuna galtzen dira, guztiak ere ezinbestekoak emakume heldua bihurtzeko.

Pertsonen arteko erasoen esparru bakar horretatik ateratzeak lagunduko du ikusarazten emakumeen sexualitatea zer-nolako hertsapen-testuinguruan garatzen den, eta lagunduko du, halaber, erantzukizun

estrukturala berriz indarkerien gainean jartzen. Izan ere, pertsonen arteko sexu-indarkeria gisa salatzen diren egoera askok zerikusi handiagoa dute sexualitatea —guztiz-guztiona, baina, batez ere, emakumeena— garatzen den esparru zapaltzailearekin gure harremankidearen ekintza hertsatzaileekin baino. Adibidez: sexu-harremanak izatea, esaterako, ez dugulako irrigarri geratu nahi, beldur diogulako bestearen espektatibak ez betetzeari edo, are, ez dakigulako aurka egiten guztiz setatia eta are xantaiagilea den pertsona baten presioari. Uste dut ez dela oso egokia egoera horiei indarkeria deitzea, ezta arrazoi horiengatik gure sexu-harremankideei erasotzaile deitzea ere, presio egin badigute ere. Kasu horietan, baliteke pertsona hori enpatikoa ez izatea, bestearen desirei begira ez egotea eta soilik bere gogobetetasunaz arduratzea. Hortik erasotzera, baina, alde handia dago.

Niri oso garrantzitsua iruditzen zait agerian jartzea zergatik diren zapaltzaileak emakumeen sexualitatearen garapen-esparruak: hari eragiten dioten arau guztiak patriarkalak dira. Emakumeen sexualitateak askoz aukera handiagoa du desegokitasunetarako. Dela gehiegikeriagatik, dela gutxiegikeriagatik, estigma bat zeureganatu dezakezu: txortan asko egi-

ten duzulako, txortan gutxi egiten duzulako, indarkeriaz egiten duzulako txortan edo maitasunagatik soilik egiten duzulako, ipurditik egiten duzulako, zupatzea atsegin duzulako edo soilik emakumeei sartzea edo zuri sartzea... Arrazoi askorengatik, emakumeei *puta*-estigma jasan dezakete, eta lotsa edo umiliazio sexuala. Sexualitatea hertsapen-testuinguru batean garatzea ez da nahasi behar txortakide gutxi-asko enpatiko, sentibera edo matxistaren hertsapen zehatzarekin. Horri aurre egiteko bidea da sexualitate transgresoreak eta desafiatzaileak sustatzea, eta bai, baita ere gure gorputzak erlatibizatzea eta haiekin lotzen ditugun sakralitatea eta larritasuna esanahiz hustea. Eta min eta kalte kolektibo horiek esanahi estrukturaletatik abiatuz ikusaraztea, ez esanahi partikularretatik.

Intentsitatea, larritasuna, jarraitutasuna, indarraren edo indarkeria fisikoaren erabilera... ez bereizteak gure bizipena baldintzatzen du, eta, gainera, eskuhartze punitiboa justifikatzen du, eta gure arrisku-sentipena areagotzen. Sexu-harremanetan emakumeen ikara areagotzea oztopo da askatasunerako, baita esploratzeko gai sentitzeko ere, baina baita zure mugak zein diren jakiteko eta horiek ezartzen ikasteko ere.

Horrek berdin balio du egiaz eraso bat gertatzen den kasuetan ere. Lehenik eta behin, kasu horietan ere testuinguruko beste elementu batzuk hartu behar dira kontuan: egiaz eraso bat gertatu dela esateak ez du esan nahi sexu-harreman hori osotasunean bortxazkoa izan denik, horren aurrean jokatzeke modu bakarra dagoenik, eraso egin duenari gutxi-asko zentzuz gogoetarazi ezin zaionik, betiko ukituta geratu behar dugunik, aurrerantzean inorekin solasaldirik ezin izango dugunik eta abar. Zigorren kulturak feminitate zaurgarriak eta sexualki sentikorrak sustatzen ditu, eta sustatzen du, halaber, ulertzea indarkeriak ez duela ñabardurarik, mailakatzetik eta testuingururik; horrek babesgabe bihurtzen gaitu, eta patriarkatuak feminitateari atxiki ohi dizkion ezaugarriak errepikatzen ditu, hots, emakumeak ahulak dira fisikoki eta mentalki, eta, beraz, ez dakite zer nahi duten eta ezin dute aktibatu mekanismorik hori lortzeko. Toki horrek zaurgarri bihurtzen gaitu, eta areagotu egiten du indarkeria jasateko dugun arriskua. Nola gauzatzen da hori? Bada, adibidez, genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren aurkako lege feministen esku-hartzea debekatuz, baina baita aktibismoaren esparruetan edo ikuspegi komunitariokoetan, non zabaldu baita biktima bat INOIZ ezin dela jarri erasotzailearen aurrean; ideia

hori, lehenik, faltsua da, eta, jakina, kaltegarria da biktimarentzat berarentzat. Argudiaketa horietan ez da baloratzen indarkeriaren maila, jarraitutasuna eta tipologia, ezta hark biktimarengan duen eraginaren zenbaterainokoa; gainera, biktimak/emakumeak el-karrizketarako ezgai direla pentsatzetik abiatzen da. Jarrera horiek, bestalde, agerian uzten dituzte arrazakeria nabarmena eta perspektiba bakarra; izan ere, kasu eta komunitate askotan, ohikoa da familia barruko negoziazioa. Horrek ez du esan nahi negoziazio hori modu idealean gertatzen denik; esan nahi du egin daitekeela eta, feminista gisa, emakumeen egoerak beren komunitateetan konpontzeko interesa bagenu, eta ez gure haserrea jendaurrean erakusteko, beharbada esparru horretan esku hartu ahal izango genukeela, elkarrekin pentsatuz nola lagun egin, zer adierazle erabili... prozesuak hobeto egiten laguntzeko.

Gehien kezkatzen gaituena da ideia horiek nagusiki emakumeentzat eta pertsona feminizatuentzat direla kaltegarriak, min handia eragiten dutelako. Emakumeen sexua ulertzeko molde zehatz batzuk, baita haren izaera berezia eta sakralizazioa ere, bortxaketaren eta sexu-indarkeriaren interpretazio katastrofisten jatorrian daude. Sexu-indarkeriaren bizipena

traumatikoa izan daiteke, baina beste kontakizun batzuk sortu beharra dugu, bizipen hori interpretatu ahal izateko leheneratzea eta erreparazioa posible diren tokietatik, prozesu ahalduntzaileagoak eta osasuntsuak ahalbidetzen dituzten lekuetatik. Horretarako, ezinbestekoa da agerian jartzea emakumeen gorputzei eta haien atalen hierarkiari esleitutako balioak *eraikiak* direla, interes patriarkalen arabera ezarriak; hala, bortxaketaren biktimek bizipenari aurre egiteko eta hura berrinterpretatzeko garatu ditzaketen estrategia ugariak identifikatu ahal izango ditugu, eta biktimizazio arduragabe eta pasiboaren kontakizun bakarrera kateatuta egotea eragotziko dugu.

(H)

Ciberlocutorio ¿Qué hacemos con los violadores?
[Ziberlokutorioa: zer egingo dugu bortxatzaileekin?] podcastean¹¹ entzun nizan, eta asko gustatu zitzaidan esaten zenuena. Izan ere, bereizi egin zenituen haserrea adierazteko beharra, batetik, eta zigortzeko beharra, bestetik. *Declaración de*

11 Ciberlocutorio Radio Primavera Sound irratiaeren podcast bat da. «¿Qué hacemos con los violadores?» atala zenbait tokitan entzun daiteke: haien webgunea, Spotify, iVoox...

guerra¹² [Gerra-deklarazioa] testua aipatu zenuten, zeina 2019an irakurri baitzuten Santiago de Compostelako O Aturuxo das Mariás gizarte-zentro okupatuan; feminista antolatuen talde batek topaketa batera gonbidatu zituen bere ingurune aktibistako gizonak, eta ekitaldi hura bultzada, zartada, irain eta abarrekin bukatu zen, hala erantzun baitzieten feministek gizonei sexu-indarkeriekin lotutako zenbait egonezin metaturen ondoren. Topaketa haren harira, talde feministak *Justicia por la mano*¹³ [Zigorra gure esku] komunikatua atera zuen, eta testu hura Heura Negrak argitaratutako *¿Y qué hacemos con los violadores?*¹⁴ [Eta zer egingo dugu bortxatzaileekin?] liburuan dago jaso. Zuri basakeria irudititu zitzaizun gizarte-zentro hartan gertatu zena. Baina gogora datorkit iristen ez den kontzientzia baten zain egoteak eragiten duen etsipena, hase-reea, beste metodo batzuk bilatzen amaitzea, men-

12 Testua hemen kontsultatu daiteke: www.dworkinista.wordpress.com/2019/06/11/declaracion-de-guerra/

13 Testua hemen kontsultatu daiteke: www.justicapolamao.wordpress.com/2019/07/01/comunicado-1-j-2019 (galegoz argitaratua).

14 *¿Y qué hacemos con los violadores?* Perspectivas anarquistas sobre cómo afrontar la violencia sexual y otras agresiones machistas. Hainbat egile ditu, eta Descontrol-ek argitaratu zuen, Heura Negra-reen batera, 2020an.

deku-nahia... Posible da haserrearen adierazpenari muga legitimoak jartzea?

(LM)

Uste dut lehenik eta behin ondo bereizi behar ditugula, batetik, haserre justifikatuak, ulergarriak, are ulertezinak, eta, bestetik, haserre instrumentalak, guztiz bestelakoak direnak. Gaur egun, emotibismo burges moduko bat dela eta, haserre edo beste edozein emozio aipatzen dugunean, badirudi egiazkotasun-kutsu ukaezin bat ematen zaiola: sentimenduak zerbait purua balira bezala, egiazkoak, ez-baldintzatuak, ez-instrumentagarriak. Kritika politikotik joera horren eginkizun maltzurra salatu izan ez balitz bezala, eta salatu izan ez balitz bezala sentitzen duguna kontrol psikopolitikoaren molde sofistikatuen —eta batzuetan aski baldarren— bidez sentiarazi nahi diguten horrek baldintzatzen duela. Horren adibide argiak ditugu neskabila baten hilketagatiko zalaparta punitiboak —oinazeak hautsitako gurasoak erakusten dizkigute— edo katastrofe baten ondorioak jasaten ari den jendearen irudien partzialtasuna —alabaina, irudiak jendaurretik desagertzen dira pertsona horiek ustezko katastrofearen kausa estrukturalak salatzeke antolatzen direnean—.

Emotiboki baldintzatzen gaituzte, sinets dezagun besteek edo guk sufritzen dugunean automatikoki ezerezten dela beste edozein gaitasun arrazional, etiko edo gogoetazko. Eta, are okerrago dena, beti jenderik pobreena eta marjinatuena erakusten dute atsekabe handiz sufritzen. Bi elementu horiek lotuz uler dezakegu nola beti jende-talderik pobreenak eta marjinatuenak izango diren atsekabez eta sutuki sufritzen —edo gozatzen— dutenak, arrazionaltasunik, gogoetarako gaitasunik eta, jakina, zilegitasun politikorik ezarekin lotuko direnak. Horren adibide dira hedabideek Katrina urakanaren garaian erakutsi zituzten irudi eta informazioak. Komunikabideek, alde batetik, arreta mediatiko handia jarri zuten hondamendiaren irudietan, baita etxeak eta bizitzak suntsitu zirenean New Orleansen bizi ziren herritarren etsipenean ere. Bestalde, baina, askoz neurri txikiagoan kontatu zituzten pertsona horiexek egin zituzten protestak salatzeke ebakuazioa antolatzeko baliabideen gabeziak klasismoa eta arrazakeria eragin zituela eta eraikuntzak oso egoera eska-sean zeudela nagusiki pobreak eta beltzak bizi diren zona horretan.

Biktima-estatusaren erabilera instrumentala justifikatzeko, ezinbestekoa da biktimak ekintza onak

zein txarrak egiteko duen nahimena eta aktibazioa ezkutatzea. Esparru neoliberaletan biktimak horrela erabiltzeko, beharrezkoa da biktimak nahimenik ez izatea, asko sufritzea eta oinaze eramanezina pairatzea, eta, aldi berean, batere gaitasunik ez izatea ebaluatzeko, erabakitzeko eta gertatutakoa kritikoki aztertzeko; hau da, biktimak erabat arduragabea izatea. Biktima hori, Giglioli-k dioen bezala, «botere ororen ametsa da».¹⁵

Bai, egia da: oinazeak gure balioetan eragin dezake. Baina eragin hori ez da beti modu berean gertatzen, eta, oro har, eskura ditugun ereduak, injustiziaren aurrean nola erreakzionatu behar dugun erakusten digutenek, gure minarekiko ikuspuntua baldintzatzen dute —berriz ere—. Ildo horretan, beste kontu bat aipatu nahi dut: indarkeria sexual edo matxistengatik salaketetan ere biktimak eta komunitatea babesteaz bestelako interesengatik instrumentalizatzen da biktimizazioa. Askotan, emotibismoak eta ustezko haserre legitimo batek kasu horretarako ulertezinak —eta niretzat okerragoa dena, ikuspuntu etiko batetik onartezinak— diren ekintzak justifikatzeko bidea irekitzen du, haserre horren ondorio

15 Daniele Giglioli biktimaren ideologiari buruzko bere ikerketa azaltzen du liburu honetan: *Crítica de la víctima* (Herder, 2017).

den ustezko eutsiezintasun baten babesean, emakumeen komunitateek pairatutako indarkeriek eragindako erresumin historikoko sentimendu baten ondorio direlako.

Hala, Gabriela Méndez Cotak esan bezala, biktimaren kondizioa «performance biktimista» huts bilakatzeko da, hau da, jarrera esentzialista, instrumental eta autoritario, eta jarrera horrek, gainera, ez du inongo loturarik biktimen benetako interesekin.¹⁶ Biktimizazioaren bizipen ankerrak ikusteko gutxi du, oro har, zenbait feminismok egiten dituzten «performance biktimista» horiekin edo —Trebisaccek aipatzen duen— «chou tanatokratiko»arekin; feminismo horiek biktima guztien ordezkariatzat jotzen dute beren burua, eta subjektibitate zehatz bat sustatzen dute, alegia, biktima irrazional, apolitiko —hau da, kontserbadore— eta onberarena, ezin dena ezeren erantzuletzat hartu eta ezin zaionari bere ekintzen konturik eskatu. Horrenbestez, gauza bakarrerako balio du biktimak ordezkatzeko rol politiko eta pertsonalak: norberaren intereserako.

16,17 «El victimismo estratégico o las trampas del nihilismo» artikuluan azaltzen du, liburu honetan: *Deseo y conflicto. Política sexual, prácticas violentas y victimización* (Fondo de Cultura Económica, 2023; koord.: Marta Lamas eta Mariana Palumbo).

Uste dut maila teorikoan asko hitz egin dela biktimismoaren errentagarritasun politikoaz, orobat sortzen diren arriskuez biktimismoak, nihilismoaren tranpa etiko gisa, balio demokratiko jakin batzuk — *adierazpen-askatasuna* edo *parte-hartze politiko*a— emantzipazioarekiko inkoherenteak diren proiektu politikoek zerbitzura jartzen dituenen.¹⁷ Tranpa honetan datza: ardatz duen analisi-esparruaren bertsio zorrotzago batean, hori guztia interesgarria izan liteke indarkeria zehatz batzuen biktimei —adibidez, genero-indarkeriarenak eta, bereziki, sexu-indarkeriarenak— historian zehar eman zaien tokiari aurre egiteko (nola tratatu diren eta nola jarri diren zalantzan). Kontua da biktimaren infantilizazioak eta duintasun ezak bi aurpegi dituela: batetik, patriarkatuak zalantzan jartzen du; bestetik, arduraz gabetzen da, oinazeak edo feminismo batzuen zapalkuntzak ezindutako izaki huts bihurtu delako. Biktimismoaren bi bertsioetan, biktima hasieran errugabea da, eta, oso azkar —gure espektatibei huts egiten dienean—, gaizto bihurtzen da. Biktima/errudun pareak emakumeen artean ere funtzionatzen du.

Horregatik, zuk aipatutako kasuetan, uste dut koktel punitiboaren osagai guztiak elkartzen direla. Lehe-

nik eta behin, ziurtzat jotzen da Santiagoko gizarte-zentroko gizonen aurkako ekintzak sexu-indarkeriako egoeretan duela jatorria, baina nik jakin nahi nuke zer egoera jo dituzten sexu-indarkeriatzat kasu horretan eta, jakina, zein zen ekintzaren helburu politikoa. Nik neuk ez diot xede politikorik ikusten, ez behintzat emantzipatzailea edo eraldatzailea denik, ez bada, berriro diot, gizon horiengan partikularizatzen den egonezin lauso batetik eratorritako haserre eta amorru bat adieraztea. Ez dugu ahaztu behar arriskua gizon edo kolektibo zehatzengan partikularizatzea eredu punitiboen ezaugarrietako bat dela, baita segurtasuna ulertzeko modu zehatz batena ere; alegia, segurtasuna erasoen gabeziarekin lotzen da, ez espazio atsegin, materialki jasangarri eta sozialki solidarioen sustapenarekin. Kasu honetan, badirudi honako hau esaten dela: «Haserre nago; hauek ordaindu behar badute, ordaindu dezatela, zerbait egingo zuten eta...». Eta, jakina, zerbait egingo zuten, matxismoarekin konplizitateren bat izango zuten; indarkeriarekin ez dakit, ordea, aintzat hartuz zeri esaten zaion egun *indarkeria*. Eta, bestalde, uste dut zenbait arrisku dituela ekintza hori *¿Y qué hacemos con los violadores?* liburuan jasotzeak, horrekiko ezein posizionamendu adierazi gabe. Batez ere, hauxe: indarkeria irrazionalaren

fetixismo estetikoaren eragiten du, zeinak hainbeste arazo eta min pertsonal eta politiko eragin baitizkigu zenbait mugimendu militanteri eta zeinari buruz sakonki hausnartu baita, merezi lukeen baino hein apalagoan bada ere. Eta liburu horretan, ba ezer ez: bizipena kontatzen da, eta jendeari grazia egiten dio. Niri batere ez, egia esan.

Uste dut arduragabekeria handia dela bizipen batzuk testuingururik gabe zabaltzea edo erakustea halako inkoherentzia teoriko eta politikoak dauzkatenean —eta askotan gertatzen da hori azkenaldian—. Kasu askotan, ekintza guztiz kaltegarri horiek justifikatzen omen dituzten oinarri teoriko-politikoek baliotasun handia dute. Arazoa da —nire ustez— eraman beharko ez liratekeen lekuetara eramaten direla eta gaur egungo feminismoaren urritasun intelektualaren erakusgarri direla; feminismo hori, kasu askotan, lelo eta panfleto mordo huts bihurtu da zenbait arrazoiengatik, hala nola zentsura, antiintelektualismoa, feminismo ofizialaren axioma zehatz batzuk kritiko-ki zalantzan jartzeko ezintasuna, jarrera kritikoekiko beligerantzia eta abar, guztiak ere punitibismoarekin lotuak. Horretan guztian punitibismoa gauzatzeak teoriaren arloan hazten jarraitzea eragozten du, eta, bestalde, praktika feminista batzuen inkoherentzia

politikoa sustatzen du. Adibide bat jartzearen, falazia bat da esatea militante feminista antipunitibistek erasotzaileen alde egiten dutela, biktimak babesik gabe uzten dituztela edo ez dietela laguntzarik eskaintzen justizia-sistemara jotzen dutenean jasaten dituzten indarkeriei aurre egiteko, eta falazia horrek funtzionatzen du ez dagoelako eztabaida publikorik, ez dagoelako informazioa egiaztatzeko politikarik eta ez dagoelako perspektiba historiko eta teoriko feministarik.

Hori guztia esan ondoren, berriro diot, nire ustez oso hausnarketa politiko-teoriko baliotsuak dau-de praktika politiko horien atzean: kapitalismoaren subjektibitate arrakastatsuen ardatz den arrazionaltasun zuri eta burgesa zalantzan jartzea, tradizionalki ezagutza legitimoen esparrutik kanpo utzitako ezagutza subalternoak aldarrikatzea... Kontua da, berriro ere, zer erabaki politiko hartuko dugun konfigurazio politiko teoriko horietatik abiatuta. Aukera bat da politika konplexu, interseksional eta ez-identitarioetan aurrera egitea eta objektibotasun indartu bat aldarrikatzea, abiatuz partzialki zalantzan jartzetik ustezko unibertsalismoak eta horiek dituzten ondorioak botere klasista, arrazista eta patriarkalari dagokionez. Beste aukera bat da identitatearekin

eta erresuminarekin lotutako ikuspegietara jotzea, zeinek partikularizatu egiten baitute egonezina, hau da, ez dute egiten sufritzen ari diren beste batzuekiko elkartasuna sustatzen duen irakurketa estruktural bat, eta ez dute egoki adierazten zein diren gure oinazearen jatorriak gure bizi-baldintzak eta gure balio kaltegarriak sortzen diren esparruetan.

Ikuspegi horretatik, ulertzen dut garrantzitsua izan daitekeela haserrea adieraztea eta ulertzea ezen horren jatorria, batzuetan, ekintza partikularretik harago doala, erreakzionatzen dugun unetik harago. Horrek zenbaitetan dakartza itxura batean neurritz kanpokoak diren ekintzak, baina egiaz ez direnak halakoak; aitzitik, erakusten digute zer nekatuta, abailduta eta minduta gauden etengabe gertatzen diren gutxiespenezko, larde-jariozko eta gaitzespenezko egoera horietaz. Baina indarkeriaren estrukturaltasuna eta haren izaera sozio-historikoa nabarmendu duten analisi feministaren esparruek bi gauza ulertzeko intelijentzia politiko eta afektiboa eman behar ligukete: alde batetik, oinaze partikularrari gehiegizko garrantzia emateak dakartzan arriskuak; eta, bestetik, herentzia kulturalaz eta beldur atabikoez jabetzea; izan ere, neurritz gain erreakzionarazten digute indarkeria metatuengatik, zeinak

oinordetzan jaso baititugu historikoki indarkeriaz tratatu izan diren komunitateetako kide izateagatik.

Horrek beharrezkoak diren bi ildo politikotara garamatza: (1) sufritzen ari denari bere egonezina eramaten laguntzea, hari garrantzia emanaz eta hura arrazionalizatzeko aukera eskainiz, eta kalte gutxiago egingo dioten interpretazioak eskainiz espazio seguru eta babestuetan; (2) oinaze komunitario horien potentzia politikoa bideratzea, haien jatorri estrukturala seinalatuz eta norberaren baitako erantzukizuna berrikusteko aukera eskainiz. Jakina, uste dut ere garrantzitsua dela —eta asko aipatzen du Shulmanek bere liburuan— egoera okertu aurretik esku hartzea, hau da, gatazka-egoera bat eraso-salaketa bihurtu baino lehen. Adibidez, pentsa dezakegu aurrez azter litekeela nola banatzen diren botereak, hierarkiak eta autoritadedun ahotsak gure testuinguruetan. Hori, sentitzen dut esatea, komunitateko kide guzti-guztien erantzukizuna da.

(H)

Conflict is not Abuse liburuak pentsarazten du ere oro har ez garela gai jabetzeko haserre eta, are, mendeku-egarriz gaudela. Horrek, gatazkaren hasieran —eta ongi dagoenaren edo gaizki dagoe-

naren subjektibitate kulturaletatik at—, gehiagotan eramaten gaitu guduaren logikara zigorrarenera baino, borrokatzeko instintua dugulako. Baina ez gara horretaz jabetzen, edo ez dakigu egiten, eta baliabide diskurtsiboek —gatazka/abusua kudeatzeko balio dutenek— eta eskura dauzkagun etikek ez dute horrenbeste ziurtatzen borrokaren aukera hori, baina bai zigorrarena. Hortaz, desadostasunak, askotan, erasotzaile edo errudun bat zigortzeko eta *biktima* bat babesteko borroka gurutzatu bihurtzen dira azkenean. *Alianzas rebeldes*¹⁸ [Aliantza errebeldeak] liburuan eta zure elkarrizketa batzuetan problema gisa planteatzen da biktima feminismoaren subjektu politiko gisa egituratzea: biktima bihurtzen da pribilegio moral —onak dira— eta epistemologiko —arrazoia dute—, eta, era berean, kanpoan uzten dira beste biktima-molde batzuk, hain onak ez direnak. Are gehiago, planteatzen duzu biktimaren rolean trabatuta gera gaitezkeela eta horrek pertsona indartsuagoak eta osasuntsuagoak —edo bizitzak ekarriko dizkigun egoerei aurre egiteko kapazago— bilakatzea eragotz diezagukeela. Zergatik da arazo bat biktimaren figurarekiko eta haren kontrakoarekiko —erasotzailearekiko— setakeria hori?

18 Cristina Garaizabal, Laura Macaya eta Clara Serra, *Alianzas rebeldes: un feminismo más allá de la identidad*, Bellaterra, 2021 Bartzelona.

(LM)

Lehenago ere hitz egin dugu gai horri buruz, baina zentzu zehatzagoan, beharbada, eta indarkeria matxistako egoeren eredutik abiatuta, zuk diozun sektakeria horren arazo nagusia da genero-rol tradizional eta patriarkalen naturalizazioa eta kosifikazioa. Biktimaren papera esentzializatzen da, eta, berriro ere, feminitate ahul bat eraikitzen da, sexualki sentikorra, infantila, hauskorra, bere mugak jartzeko ezgauza eta irrazionalismoaren mendekoa; feminitate horrek ez du ekintza politikorako gaitasunik, indarkeriarekiko eta hura gauzatzen duenarekiko gorrotoa adierazten duen politikatik harago. Hala, bistan denez, lortzen da egiturazko arrazoiak ezkutatzea eta estatua gatazkako aktore neutro gisa aurkeztea, eta orobat lortzen da ezkutatzea gatazka horrek indarkeriaren sorrerarekin eta errepikapenarekin duen bat egitea. Biktima ideal horiek sortuta, parametro horiek betetzen ez dituztenak baztertu eta zalantzan jartzen dira; izan ere, biktimak onberak eta zintzoak badira, halakoak ez direnek ez dute jasoko arreta bera, ezta erruki bera ere. Hala, eskubideak moralizatzen dira, eta erakundeak feminitatearen genero-arau hegemonikoetarantz moldatzen, hartara, zorte apur batekin, biktima-estatusari esleitutako eskubideak jasotzeko.

Hemen, txarrena da zer ondorio dituen indarkeriaren biktimenezat subjektibitate femenino sexualki ikarati eta minberaren eraikuntza horrek guztiak. Gizarte gisa, onartu dugu bortxaketa, adibidez, inoiz gainditzen ez den indarkeria bat dela; hori ez da onargarria, eta gehiago esaten du gure gizarteari buruz indarkeriaren larritasunari buruz baino. Bortxaketa bat traumatikoa da edo izan daiteke, noski; ondorio emozional eta psikologiko traumatikoak daude, jakina, askotan espazio seguruak eta babestuak behar dituztenak laguntza jaso ahal izateko. Baina agerikoa da, halaber, emakumeen sexua eta gorputzak izaera berezi horrekin lotzen eta hipersentikortasun sexual hori azpimarratzen jarraitzen dugun bitartean biktimen oinazearen konplize izaten eta haiek sendaezintasunera kondenatzen jarraituko dugula, eta ez, inondik ere, haiek babesteko helburuarekin edo haien sendatze-prozesua sustatzearen haien bizi-baldintzak hobetzeko xedearekin.

Ezin da onartu bortxaketaren biktima diren emakume batzuk berriz bortxatu izan balituzte bezala sentitzea bortxaketa baten karietara auzitegiek epai bidegabe bat jakinarazten dutenean. Ezin da onartu gure gizarteetan emakume batek bere buruaz beste egitea bere argazki edo bideo erotiko bat jendea-

ren artean zabaldu delako, Iveco¹⁹ kasuan gertatu bezala. Hortaz, feminismoaren kintaesentzia gisa aurkeztutako legeak proposatu bezala,²⁰ gure esku-hartzearen oinarria izan daiteke, batetik, biktimen ospe sexuala leheneratzea, eta, bestetik, egun batean irudi hori partekatzeko botoi bati eman zioten gizon —eta emakume— guztiak zigortzea eta errugabe baten suizidioa eragin izanaz salatzea. Baina, nire ustez, horrek instituzio patriarkal nagusi bat indartzen du, eta sendotzen du, halaber, emakumeen ospe sexuala —eta horixe dago emakumeen amesgaizto sozial eta sexual okerrenen jatorrian—; eta pertsona zehatzak kondenatzen dira, nahiz eta, izatez, lehen esan bezala, sexualitate femeninoaren garapen-esparru zapaltzailearekin zerikusia duten ekintzak diren. Esparru zapaltzaile horretan esku hartu beharrean, berriz ere, banakako irtenbideak eskaintzeko joera dugu.

Esaten dugunean indarkeriari buruzko beste kontakizun batzuk ikusarazi eta sortu behar ditugula, esan nahi duguna da gertatu zaigunaren inpaktua

19 Horri buruzko informazio apur bat aurkitu dezakezu albiste honetan: www.eldiario.es/sociedad/justicia-archiva-trabajadora-iveco-difusion_1_5972443.html

20 Legea, Sexu-askatasuna modu integralean bermatzeari buruzkoa; hau da, «soilik bai da bai» legea.

eta hura bizitzeko eta interpretatzeko moduak ez direla ez naturalak ez esentzialak, eta eskura ditugun kontakizun kulturalen arabekoak direla. Adibidez, ziurtzat jotzen dugu bortxaketa-egoeretan biktimek ez dutela inolako erresistentziarik aktibatzen, eta xalotasunaren eta paralizazio automatikoaren kontakizunak gorputzaren erreakzio naturaltzat onartzen ditugu; eta, hori egitean, oso presente dagoen beste errealitate bat ukatzen ari gara: arrisku handieneko egoeretan, biktimek negoziatu egiten dute handik bizirik ateratzeko. Baina, jakina, errazagoa da onartzea —gizarte puritanoa da gurea— biktimak ia pampina bizigabeak direla, eta ez pentsatzea batzuetan negoziatu egiten dutela eta adostasunak eta konplizitateak hitzartzen dituztela beren erasotzaileekin bizirik ateratzeko, ez dutelako guztiz argi ikusten zer gertatuko den. Horrek ez du esan nahi ez direla gure babesaren hain duin. Are gehiago: biktima batek sentitu beharrekoaren eraikuntza hori, haren xalotasun infantila azpimarratze hori, horixe da sexu-indarkeria jasan duten pertsonen laguntzeko prozesuetan gainditu beharreko oztoporik larrienetako bat. Emakumeak errudun eta lotsatuta sentitzen dira ez dituztelako estandarrak betetzen; eta feminismo batzuk, zoritxarrez, estandar horiek errepikatzen ari dira. Eta gero esaten dute: «Ez dute salatzen senti-

tzen dutelako epaileak moralki epaituko dituztela». Bai, ados, arrazoa ematen dizut. Baina pentsatu al duzu zuk biktimei eta feminitateari buruz sustatzen dituzun zenbat diskurtsok laguntzen dieten biktima horiek moralki kondenatzen dituzten eta haien prozesu judizialetan ondorioak dituzten epaiei?

Identitate-politika sendoaren adierazgarri diren logikak errepikatuz, emakume guztien beharrak batzuen interesen inguruan homogeneousatzen dira. Azken horiek zilegi dute beren bizitza eta beren harreman komunitarioak etetea, adibidez, iruzkin sexualki deseroso batengatik; eta horrekin bilatzen dutena da beren kausa hori emakumeen eta/edo biktimen kausa komun bihurtzea. Toki horretatik artikulatzen garenean, gureak egin du: badakigu kausa komun hori beti gorantz homogeneousatzen dela, kontuan hartu barik emakumeak edo biktimak ez direla soilik emakumeak edo biktimak, baizik eta baita beltzak, ijitoak, pobreak, amak, sindikalistak, bollerak, transak edo politikoki jazarritako kolektibo politikoetako parte.

Biktimen babesgabetasuna sortzen den bezala, horri kontrajarriz sortzen da erasotzaile boteretsua, bere ekintzen erantzulea, eta, biktima babesgabe

baten aurrean, handiagotu egiten da haren boterea. Horrek errealitatea sortzen du. Eta guk esaten duguna da indarkerien eta horiek legitimatzen dituzten subjektu otzanen ikuspegi neoliberal eta punitibo horiek biktimak ulertzeko modu zehatz bat homogeneizatzen dutela. Prozesu horretan, halaber, gizonak erasotzaile gisa esentzializatzen dira, eta orobat esentzializatzen da haien ekintzak interpretatzeko modu zehatz bat.

Erasotzen duten eta gizartean zis gizon heterosexualtzat ulertzen diren pertsonen kasuan —eta, esan bezala, haiek dira nagusi, alde handiz—, ez dira bereizten larritasuna, intentsitatea, maiztasuna, jarraitutasuna, intentzioa eta abar. Alde horretatik, erasotzailea ulertzeko moduak, are gehiago sexualki erasotzen badu, antz handia du kulturek, lehenengo diziplinarioek eta gero kontrolekoek —biak ere gai honi heltzeko molde kapitalistak— gaizkilea ulertzeko izan duten moduarekin: izaki bat, kontrola eta nagusitasuna eskuratzen dituen arrazionalki hautatuz delituzko bidea, edo izaki patologiko eta neurrigabe bat, berez kaltegarriak diren bulkadei jarraituz mina eragin besterik egiten ez dakiena. Gaizkilea ulertzeko molde horietako bakoitzak hari dagokionez egoerari heltzeko molde desberdinak mobilizatzen

ditu; alabaina, biek ala biek erantzun punitiboak justifikatzen dituzte: bai, alde batetik, zero tolerantziaren politikak ezartzen duten kontrol prebentiboaren bidez eta politika horiek neurrigabeki areagotutako delituen zigor edo ondorioen bidez; bai, bestetik, giltzapetzearen, diziiplina-neurrien, subjektuaren eta haren ekintzen gainean esku hartzeko zientzien ugaritzearen eta abarren bidez.

Gaur egun, gertuago gaude lehen eredutik, eta hori da, hain zuzen ere, zenbait feminismok erreferentziatzat gehien hartzen dutena: haientzat, erasotzailearen nagusitasun-asmoa da indarkeriak azaltzeko iturri bakarra. Nagusitasun-asmo hori norberari on egiten dion erabaki moduko baten gisa planteatzen da, goranzko logika duena: jokabideen mailarik beheren eta arinenean ezer egiten ez bada, areagotu egingo dira, gizonen izaera intrintsekoki bortitzagatik edo haiei onura zuzenak ematen dizkien nagusitasun-grina dela eta. Azalpen sinpleak dira, eta beldurra eta marka bultzatzen dituzte, eliteen interesei erantzuten dien munstrotze homogeneizatzailerak; horrek esku-hartzerik punitiboan legitimatzen ditu, eta ez du arazoa konpontzen. Indarkeria gero eta handiagoaren logikak —«lerde-jarioka edo txiste matxista bati barrezka hasi, eta bortxatzen

bukatzen da; horregatik, jarrerarik arinenak errotik moztu behar ditugu»— eskuin muturraren politika segurtatzailearen ezaugarri dira, zero tolerantziaren politikenak: «Zero tolerantzia drogen txikizkako salmentari, txikiari erasoz handia suntsitzen dugulako». Iruditzen zait ez dela beharrezkoa hemen azaltzea uste horren izaera absurdoa eta, batez ere, nabarmenki arrazista eta klasista, azkenean jende-talderik kaltetuenei eragingo baitie.

Era berean, iruditzen zait nabarmena dela zer-nolako konplizitatea duten neoliberalismoarekin feminismoaren gaur egungo konfigurazio politiko askok, genero-indarkeriei heltzeko moduari dagokionez. Baina, hori guztia nahikoa ez balitz, gogora dezagun —eta ez gaitezen honekin luzatu— zigorraren kulturak eraikitako feminitate horiek ez direla soilik baliagarriak zigorra legitimatzen dutelako; horrez gain, guztiz ezinbestekoak dira erreprodukzio sozialerako. Emakume onbera, emotibo, erabat sentikor... eta sexuaren eta gizonen beldur diren horiek gabe, nola bermatuko lirateke doako zaintza-lana, seme-alabatasuna, gizonen desira ustez eutsiezinaren kontrola? Nola bermatuko litzateke emakumeak kapitalismoaren interes familiaristentzat baliagarri izatea?

3. Zis gizonik edo erasotzailerik ez dagoenean

(H)

Queer izaerari beti eskertuko diogu ezen, disidentzia sexualaz harago, mundu tarteka oso bere baitara bildu eta lineal honetan ezarritakoez bestelako bi-deak irekitzen dizkigula; izan ere, balirudike mundu honetan guztiak amaiera itxi bat duela, amaiera jada ezagun bat. *Conflict is not abuse* hori egiten du: hitz egiten digu giza harremanetan dagoen indarkeriari buruz, esaten digu arazo bat dagoela zis gizonen sexu-indarkeriarekin, zeinak toki garrantzitsu bat betetzen baitu guk indarkeriaz dugun imajinarioan; baina esaten digu, orobat, zis gizonak ekua-ziotik kenduta ere kudeaezinak zaizkigun arazo asko izaten jarraitzen dugula. Eta orduan, epigrafe batzuk alde batera utzita, non azaltzen baitu gizonen indar-

keriari buruzko bere analisia, gainerako orrialdeak erabiltzen ditu aztertzeko ihes-mekanismoak, minari ematen zaion gehiegizko garrantzia eta zigorra, guztiak ere behin eta berriro errepikatzen ditugunak, baita queer inguruetan ere, baita generoa edo sexualitatea gai nagusi ez diren inguruetan ere. Dinamika horiek hausteko aipatzen dituen irtenbideen artean, hizkuntza zentzuz erabiltzea dago. Berak gatazka eta *abusua* bereizteko eskatzen du, eta horrek niri pentsarazten dit gehiegi erabiltzen ditugula *tratu txar* terminoa eta maltratatzaillearen figura. Eta zuk ere aipatu duzu jada zure kritika: gehiegi erabiltzen dugu *indarkeria* hitza.

Hizkuntza, gainera, eragiketa kolektibo bat da, eta subjektibitate zehatzak sortzen ditu erabilia den askotariko komunitateetan. Oraindik ez gara bizi munduan gelatxo distopiko batean, gure existentziari erabateko bakardadean aurre eginez. Interdependenteak gara, ez soilik zerbitzuei eta hornidurei dagokienez, baita harreman afektiboek dagokienez ere. Gatazkak taldeari suertatzen zaizkio batzuetan eta banakooi besteetan, baina komunitate bateko kide gara, eta komunitate horrek gatazkak interpretatzen eta erabakiak hartzen laguntzen digu. Geure komunitatearen indarkeria-kontzeptuen eta jardur-

nen arabera, gehiago edo gutxiago jotzen dugu estatuen azpiegiturara, edo geure kabuz kudeatzen ditugu gure erantzunak. Garai honetan, zeinetan orain arte azaldu bezala erreakzionatzen baitugu gatazken aurrean, ohikoa da *epaia itxuraz berdinen* artean sortzea; *itxuraz* diot, zeren saihestu egiten baita inplikatupei eragiten dieten pribilegioen azterketa intersektionala. Solasaldi honen aurrez aurreko bertsioan,²¹ Virginia García Pinoren *El jurado*²² filma ikusi dugu; bada, estatuak esku hartzen duen kasuetako bat erakusten da film horretako herri-epaimahaian.

Itxuraz berdinen arteko epaiketa horiei dagokienez, bada beste kontzeptu oso interesgarri bat, zeina, Sarah Schulmanen ustez, berrikusi egin behar baitlitzateke: **komunitatearen leialtasuna**. Berak hori ez du lotzen gure inguruarekin guztiz bat egitearekin, hark edozer sentitzen eta hark edozer eskatzen duela ere; lotzen du zentzuz jokatzeko erantzukizun kolektiboarekin, sortzen diren tentsio- eta isti-

21 «Dimarts de vídeo» programan izan zen, 2023ko azaroaren 14an, *[Conflicto] no es lo mismo que [Abuso]* saioan. Bartzelonako Santa Mònican egin zen, Hamaca-k antolatuta.

22 Filma 2012koa da, eta hilketagatik epaiketa bateko herri-epaimahaiko kideak erakusten ditu. Hemen ikus daiteke: www.hamacaonline.net/titles/el-jurado

lu-egoerei kritikoki aurre egitearekin eta sendatzen laguntzearekin. Haren ustez, hobeto pentsatu behar dugu zer egiten dugun norbaiten alde komunitate gisa, eta zer eskatzen edo uzten diogun komunitateari egiten gure izenean.

Sanchez Ferlosiok honako hau idatzi zuen: «(*Gaizki-ulertu pronominala*) Harroxko samar darabilte plurala, uste baitute *Gu* hori eredugarria dela, ez delako pertsonala, baizik eta solidarioa; baina *Ni* bezain pertsona da *Gu*, eta, litekeena da, askoz pertsona okerragoa». ²³ Zergatik da garrantzitsua bestelako leialtasunak eskatzea?

(LM)

Azkenean, ulertu dugu modu zehatz batean lagundu behar diegula sufritzen ari diren pertsonen, edozein dela ere sufrimendu horren jatorria: eraso-egoerak, gaizki konpondutako gatazken ondoriozko egoerak edo beste batzuek egindako eraso eta minak. Alegia: leialtasunez, sufritzen ari denaren hitzarekin osoki bat eginez, batez ere biktimaren eta erasotzailearen figurak oso esentzializatuak daudenean. Eta hemen okerrera da horixe jotzen dela gauzak

²³ *Vendrán más años malos y nos harán más ciegos* liburuan (Destino, 1993).

egiteko modu zuzentzat, laguntzeko eta babesteko modu bakartzat; alabaina, jarrera horiek dira, hain zuzen, gertatzen ari denarekiko arduragabeenak, baita sufritzen ari denarekiko axolagabeenak ere.

Besteen minaren aurrean, arduragabekeriaz jokatzeko bi modu daude: batere garrantzirik ez emanez, eta esanez «ez da hainbesterako, ez niri tontakeriekin etorri»; edo, bestela, haren hitzarekin osoki bat eginez, esanez bezala «horixe baietz; esaten duzuna esaten duzula ere, horixe da egia». Bi kasuetan, abandonatu egingo duzu. Goiz edo berandu, eta bi kasuetan, solaskide ez-baliozkotzat jotzen ari zara sufritzen ari den emakumea, hari duintasuna kentzen; sufritzen ari denarentzat, duintasuna beti izango da galderak jaso ahal izatea —sentitzen duenari buruzko galdera atseginak—, eta berari erantzukizunari buruz hausnarrarazi ahal izatea, zergatiari buruz, eta sentitzen duena bideratzeko aukeran dituen noranzkoez; eta, aldi berean, guk haren mina aintzatestea eta testuinguruan esku hartzea, oina ze hori eragin duten baldintzak aldatu ahal izateko. Lehenengoa patriarkatu maskulinoaren ohiko jarrera da: emakumeoi esatea gure egonezina garrantzirik gabeko txikikeriak direla. Bigarrena feminismo maternalistaren jarrera da: nagusikeriazko toki batetik

begiratzeko dio zapalduari, eta hortik arrazoia ematen, ergelei bezala.

Batzuek kolektibo zapaldu edo erasoen biktima izate hutsagatik ematen diete arrazoia kolektibo zapalduari eta erasoen biktimei; jarrera horiek dituzten pertsonak beren interes partikularrengatik agertu nahi izaten dute uneko biktimarekin edo uneko kolektibo zapalduarekin, zilegitasuna irabazteko gerra politiko eta pertsonaletan, beren mendeku afektiboetan, goititze akademikoetan eta abarretan. Nazkatu samar gaude horiez. Eta absurdoena zera da: nola izango dugu arrazoia biktima guztioi? Zer gertatzen da, bortxatzen gaituztenean burmuina aldatzen zaigula? Oroitzapenak ezabatzen? Jarrera politikoak? Ez, noski, eta hona frogatzen: denok ez dugu berdin pentsatzen. Horrek ez du esan nahi bortxaketaren bizipenak trauma eta ondorio zehatz batzuk eragiten ez dizkienik pertsonari beren bizitzaren zenbait alderditan, larritasunaren, intentsitatearen, jarraitutasunaren eta abarren arabera. Baina horregatik, hain justu, garrantzitsua da prozesu horiei arduraz lagundu ahal izatea.

Lehenago esan dugu axolagabea dela sufritzen ari denaren hitzarekin osorik bat egitea eta, gainera,

jarrera horrek eragingo duela goiz edo berandu guk pertsona hori abandonatzea. Izan ere, bestearen mina eta egonezina elikatzen ditugunean, edo gertatzen uzten diegunean —bestearen interpretazioen eta eraginaren bidez, edo komunitatearen bitartez—, egonezin hori areagotu egiten da, eta pertsona *bera* egonezin bihurtzen. Ekintza guztiak egonezin horren eraginpean daudenean —edo ekintza guztiak egonezin horretatik interpretatzen ditugunean—, jarrera biktimistetan erortzen gara, eta hor jada ez dago ez esku hartzeko ahalmenik ez erantzukizunik. Eta orduan zerbait gertatzen da, hori ere lehenago maiz ikusia: biktima edo erasandako pertsona jasanezin bihurtzen da, intrantsigente, hipereskatzaile, anker; haren eskaerek ez dute amaierarik, eta gero eta irrazionalagoak eta onartezina-goak dira. Une horretan gertatzen da abandonurik ankerrena. Alde batetik, gertatutakoaren interpretazio oker bat, edo egonezin bat, edo denboran gehiegi luzatutako min bat elikatu duten pertsona horiek egiten dutelako. Beste alde batetik, unerik okerrenean gertatzen delako, egonezina jada jatorrizko ekintzatik oso urrun dagoenean; oinazea eta sufrimendua oso handiak dira une horretan, beste modu batzuetan lagundu zezaketen lagunekiko eta kolektiboekiko zubi asko eraitsi dira ziurrenik, etab.

Duela gutxi, indarkeria matxistei modu ez-esentzialistan eta errestituratuaren inguruan lan egiten eta hausnartzen dugun militanteen eta profesionalen topaketa batean, kide batek —Maitanek— oso ondo azaldu zuen. Bera aktibista feminista da, eta harrera-zentro batean lan egiten du, umeei eta mutil adingabeei laguntzen. Esperientzia horretatik abiatuz —eta bera pertsonalki zeharkatzen duten beste batzuetatik—, gogoetagai zuen, batetik, zer zaila den besteei laguntzen dihardutenentzat mina hartzea eta min horri laguntzea «mandatu gisa ulertu gabe», eta, bestalde, zer ezinbestekoa den hori egitea —guztiz bat nator berarekin—. Indarkeriak minduta eta zeharo erasanda gaudenean, mendeku-eta gorroto-desira izugarriak adieraz ditzakegu, baita beste eskaera batzuk ere, zeinak, Maitanek zioen bezala, egia bihurtuz gero, «luzera begira zu eta zure ingurunea izorratuko baitituzte». Une horietan, oso garrantzitsua da asalatu gabe zuri entzuten eta zu onartzen dakien jendea egotea.

Asalatzeari oso arriskutsua da, zeren toki zehatz batera eramaten gaitu, eta toki horretan ez daki gu bestea ulertzen. Batzuetan, testuinguru bake-tsua goetatik gatozelako, bestelako esparru kultural —are klaseko— batzuetatik, non indarkeria gutxia-

go adierazten baita eta emozioak bareagoak baitira; eta, orduan, asaldatu egiten gara egonezinaren hiperadierazpenen aurrean. Ez dakigunez emozio horien ondoan egoten haiek toki osasungarriagoetan kokatzen joateko prozesuan, eta hiperreakzio horrek ikaratu egiten gaituenez, emozioa desagertzea nahi dugu. Horregatik, arrazoa ematen amaitzen dugu, nahiz eta egin behar genukeena den euskarri egokia eskaini, egonezina birbideratzen joan ahal izateko eta hari mugak jartzen joateko. Osterantzean, egiten den bakarra da sufrimendua elikatu eta gatazkari garrantzi handiegia eman.

Hori guztia logika indibidual eta pertsonartekoetatik harago doa; izan ere, esan bezala, banako gisa eta kolektiboki sentitzen duguna gure bizipenak interpretatzeko eskura ditugun kontakizun kulturalak eragiten dute, baina, era berean, prekarietate ekonomiko, komunitario eta afektiboek eragindako beste egonezin pila batek ere baldintzatzen dute. Izan ere, arazo hau gure egonezin partikularretatik, gure minetatik eta gure harreman-galeratik harago doa. Hori guztia arrazionaltasun neoliberaleari soilik laguntzen dieten patroik afektibo eta erlazional batzuetatik dator. Biktimaren izaera esentzializatuz, kultura politiko kolektibo zehatz bat eraikitzen laguntzen dugu,

non nihilismo infantila sustatzen baita, apetatsua, lotura afektibo, familiar eta komunitarioak suntsitzen dituen; eta, aldi berean, indarkeria komunikatiboa normalizatzen da, gatazkei edo mehatxagarritzat jotzen dugun edozein egoera-motari aurre egiteko tresna gisa.

4. Kantzelazioak

(H)

Tabernako terrazako lagun-taldeari adi egon nintzen egun hartan beste istorio bat ere entzun nuen, harreman ezin txarrago bat izan zuten bi bollerarena: une zoragarriak izaten zituzten, baina baita etengabeko gatazkak ere, portaera oso txarrak, erantzukizun oso gutxi, konpromiso oso gutxi... bi aldeetatik. Azkenean utzi egin zuten, eta, urteek aurrera egin arren, ez zen izan haiek adiskidetzeko modurik, ezta toki berean topo egiten zutenean sortzen zen egonezina apaltzekorik ere. Inoiz elkarriketa zintzo eta lasairik izan gabe, elkarri askotariko kontuak egotzi ondoren eta alde bakarreko eskakizunak egin ostean, egoera sozioafektibo hobea zuenak —edo, hobeto esanda, beraren gertueneko jende-taldeak— mezu

bat zabaldu zuen bikotekide ohiarekin partekatzen zituen komunitateetan, azalduz neska-lagun ohiaren presentziak arriskuan jartzen zuela bera eta, beraz, eskatuz haren kokapenei buruzko informazioa, harrengandik *babestu* ahal izateko. Behin eta berriro errepikatu zutenez, komunikatu hura «ez zen kantzeldazio bat»; alabaina, haren berri izan zuten guztiak berdin aritu ziren kantzeldazio bat ote zen eztabaidatzen zein bikote ohiaren iraganeko harremana kuxkuxeatzen eta epaitzen, eta argitzen zerk bihurtzen zuen *arriskutsu* haietako bat. Kontatzen zuten baita mezua zabaltzen hasi zen taldekoa zenak egun batzuk igaro zituela etxean sartuta negarrez; esaten zuen beldurra ematen ziola kalera irteteak, behar bada bestea hantxe zain edukiko zuelako, bera jotzeko prest. Esaten zuten egoera irrigarri bezain suntsitzaileria zela, salatua ere etxean sartuta negarrez baitzegoen, umiliaturik eta etsian bilatuz nola irten egoera hartatik; izan ere, sentitzen zuen *subjektu maltratzaile* gisa seinalatu zutela isilpean, bera zela *muntroa*. Guztiak bezala, hori ere erdizka kontatutako istorio bat da, hamaika ñabardura eta xehetasun eztabaidagarri dituena, inoren solasaldia entzutetik jaso. Nolanahi ere, oso interesgarria iruditu zitzaidan kasu hori hona ekartzea, kantzeldazioaren politikei buruzko zenbait konturi buruz hizketan hasteko.

Lehenik eta behin, zer dira kantzelazioak, eta zein da haiei buruzko zure kritika?

(LM)

Puntu honi dagokionez, uste dut hitz egingo nukeela gure aktibismo feminista eta queerretan eta edonolako militantzietan, baita gure harreman pertsonaletan ere, modu batean ala bestean mekanismo juridiko-penalak errepikatzen dituzten mekanismo guztiez. Azken urte edo hamarkadetan, asko ugaritu dira sexu-indarkeriagatiko edo abusuagatiko eta generoarengatiko salaketa publikoak, askotan anonimoak edo/eta sareen bidezkoak. Halaber, urte luzez konponbide bakarra eskaini da salaketa horientzat: indarkeria edo abusu hori egotzi zaion pertsona baztertzea, deserriratzea edo kaleratzea. Horrenbestez, nik honako hau adierazteko erabiliko nuke *kantzelazio* hitza: sexu-eraso edo abusu bat egotzi zaion pertsona baztertzeko, kanporatzeko edo deserritzeko estrategia. Kantzelazio hori modu askotan gerta daiteke: pertsona bat zuzenean kanporatuz, pertsona baten eta haren inguruaren kontrako *escrache*-en bidez, pertsona bati mehatxu zuzen baina ez-publikoak eginez espazio komunak erabili ez ditzan edo ekintza zehatz batzuk egitera behartzeko; adibidez, «hau egiten baduzu, beste hau egotziko

dizugu», «toki horretara joaten jarraitzen baduzu, zuri buruz dakizkigun gauza asko aterako dira», eta abar. Molde horiek guztiek emaitza bera dute, edo izan nahi dute: pertsona bat bere ingurunetik kalera-tzea edo haren autobazterketa bultzatzea, ingurune hori etsaigozkoa edo mehatxuzkoa bihurtuz.

Uste dut ez dela oso trebea izan behar ohartzeko era horretako jardunbideak ez litzazkigukeela hain ezagunak iruditu behar; batez ere, ustez emantzipa-tzaileak diren eta gizartea eraldatzea helburu duten espazioetan gertatzen diren jardunbideez ari gare-lako. Sinetsita nago inteligentzia politiko ezaren eta zigorraren logiketan ohikoak diren subjektibitate apetatsu eta arduragabeak egotearen ondorioz iri-tsi garela, gehiegitan, deshumanizazio orokortuaren maila honetara. Denbora gehiegi behar izan dugu konturatzeko. Bidean, pertsona askok hainbeste sufritu dute, ezen desagertu nahi izan baitute, eta batzuk desagertu egin dira. Sufritzen ari ziren edo indarkeria jasan zuten pertsonen egonezinei eran-tzun bat eman beharrean, haien kauei begiratzu eta min indibidual eta kolektiboa konponduz, gure erresumina erakusteko eta mendeku hartzeko beha-rrei erantzun diegu. Okerrena da ezen, askotan, kantzeldazio-dinamika horiek intentsitate oso txiki-

ko gertaerengatik sortu direla, batzuetan baita gatazka-egoerengatik ere, indarkeria kontzeptuaren erabilera zabalagatik eta minari garrantzi handiegia emateagatik; azaldu dugun bezala, neurritz gainera balioeste hori indarkeriari eta egonezinei heltzeko molde punitiboan ezaugarri nabarmena da, eta horixe gertatu ohi da sexu-indarkeriekin.

Botere punitiboa ez da gertatzen soilik estatuaren zigor-zuzenbidearen esparruetan, zeren, ondo dakigunez, estatuaren botere zigortzaileak subjektibitateak eta eguneroko jardunbideak tankeratzen ditu. Lucía Núñez aktibista eta akademiko mexikarrak dioten bezala, estrategia feministetan logika punitibistak honako elementu hauen bidez errepikatzen dira: gatazkak indibidualizatuz, helburuak sinplifikatuz, gatazkak erradikalizatuz eta blokeatuz eta lagun/etsai logika baliatuz.²⁴ Elementu horiek guztiek kantzeldazioarekin lotuta dauden jardunbideak dakartzate, eta, beraz, estatuaren politika zigortzaileen arrisku eta eragin gaizto berak dauzkate: selektiboak dira, ez dira eraginkorrak indarkeriaren kausei aurre egiteko, indarkeria sortu eta errepika-

24 Ideia hauek azaltzen ditu zenbait artikulutan. Adibidez, hemen: «El giro punitivo, neoliberalismo, feminismos y violencia de género» (2020). Hemen kontsultatu daiteke: www.lucianunez.mx/el-giro-punitivo-neoliberalismo-feminismos-y-violencia-de-genero-2

tzen dute, subjektibitate femenino pasibo eta ahu-
lak eratzen dituzte, garrantzi handiegia ematen die-
te botere maskulinoari eta kultura androzentrikoari,
biktimak babesteari buruzko espektatiba faltsuak
sortzen dituzte, eta, jakina, ez dute ez etikarik ez
justizia soziala helburu duten proposamen politikoe-
kiko koherentziarik.

Nire ustez, kaltegarriagoa da gizartearentzat kartze-
lak edukitzea, haien ondorio txar guztiekin, elkarre-
kin bizitzearen arriskua onartzea baino, edo arriskua
kudeatzeko beste modu kolektibo batzuk bilatu
behar izatea baino. Lehenik eta behin, badakigula-
ko kartzelek ez dakartela gure mundua seguruagoa
izatea, alderantziz baino; badakigu barruan dauden
batzuk ez direla arriskutsuak, beste batzuk bai, eta
badakigu jende oso arriskutsua dagoela kanpoan,
inoiz kartzelan sartuko ez dena. Hori, bistan denez,
epe luzeko helburu bat da, badakigu ez dela bihar
gertatuko. Gauza bera uste dut gure komunitate po-
litiko eta afektiboetako kantzelazioei eta zigorrei bu-
ruz, eta, kasu honetan bai, gure esku dago aldatzea,
bihar bertan. Mugimendu gisa, askoz okerragoa da
egiten ari garena egiten aritzea: proiektu politikoak
paralizatu; gero eta gehiago bakartu; testuinguru
aktibistetan hertsatuago sentitu; eraso egin duten

edo egonezin bat, egoera desatsegin bat... eragin duten kideei mina eta mehatxua egin, eta abar. Halaber uste dut zigorraren emaitzek eta bakartzeak ez dituela bihurtuko pertsona hobeak.

Beraz, zein dira kantzelaioen, kanporatzeen eta deserriratzeen benetako helburuak? Batzuetan biktima babesteko mekanismo gisa planteatzen dira, babestearen esanahia oso modu lausoan ulertuta, denborari eta kontzeptuari dagokienez. Hasteko, eztabai-dagarria da mekanismo hori automatiko bihurtzea eraso-salaketetarako. Batzuetan, baina ez beti, indarkeria pairatu duen pertsonak behar du, agian, espazio propio bat zedarritzea, eta jakitea espazio horretan ezinezkoa izango dela mina eragin dion pertsonarekin bat egitea. Espazioak bereizteak eta biktimaren espazioak babesteak ez luke ezinbestean ekarri behar erasotzailea prebentiboki espazio batek kaleratzea. Espazioak bereizteak esan nahi du espazioak bereiztea, eta, erakunde edo kolektibo gisa, egoera horietan nola jokatu diseinatzen dugunean, aurreikusi behar dugu nola bermatuko dugun bi pertsonen eutsi ahal izatea, ahal den guztietan.

Biktima babesteak ere ez luke ezinbestean ekarri behar oinazea eragin duenari bizkarra ematea, ha-

rekin harremanik ez izatea eta, are gutxiago, hari erasotzea. Ez irizpide etikoetan ez eraginkortasun politikoaren irizpideetan ez dago jokabide horiek justifikatzen dituen arrazoi justifikaturik; aurkitu dezakegun justifikazio bakarra lelo ezagun hau da: «Haserre legitimoa adieraztea». Bada, bai, legitimoa da haserre adieraztea, eta egia da jendeak haserre hartu eta onartu behar lukeela. Halere, badira zenbait kontu aintzat hartu beharrekoak:

(1) Lehenik eta behin, eta garrantzitsuena: era horretako ekintzekin gure haserre adierazten dugu, baina ez diegu inola ere heltzen indarkeriaren kausei. Beraz, neurri honek egiten duen bakarra da pertsona batzuen adierazpen-beharra ase, eta, askotan, ezta hori ere. Baldin eta inor mugak jartzeko gai ez bada, haserreak ez du amaierarik.

(2) Gaur egungo subjektibitateen adierazpen-dinamikak, askotan, ez du mugarik. Batzuetan ez dago ezer haserrearen atzean. Hau da, ez da esaten «lehenik haserre adieraziko dugu, eta gero beste toki batetik artikulatuko gara»; aitzitik, egonezina betikotu egiten da biktimengan eta mina pairatzen ari direnengan.

(3) Haserreak ez du justifikatzen ekintza oro. Garrantzitsua da haserreari lagun egiten ari zaionak hori ere kudeatu ahal izatea.

(4) Kontuan izan behar dugu ezen, askotan, beste batzuek egin dizkiguten min historikoak pertsona jakin batengan pertsonifikatzen ditugula; are gehiago, min

horiek zerikusia izaten dute emakumeen eta pertsona disidenteen hertsapen- eta desberdinkeria-testuinguruekin. «Hara, horrek bere ordaina izango du» esateak grazia du institutuko neska-talde batean —ezta hainbeste ere, egia esan—, baina ez gure herrietan bizitzeko, komunitatea sortzeko eta proiektu politikoei eusteko xedea duten pertsonen estrategia politiko eta afektibo gisa. Alde onak eta txarrak aztertu behar ditugu. Hase-re betikotu horrek haustura konponezin eta betierekoak eragin ditzake gu kide gaituen komunitatean —eta komunitate horrek gure biziraupena bermatu ohi du—; batez ere, haien parterik zaurgarrienetan.

(5) Komunitate batek horixe izan nahi badu, *gure biziraupenaren parte*, erantzukizun bat hartu behar du bere gain; alegia, gatazkei heltzeko baliabide zinez hausnartuak eduki behar ditu, ez erantzukizuna gainetik kentzeko eta parte bat —batez ere biktima— bakarrik uzteko baliabideak.

Beraz, zigorrarekin zerikusia duten neurriek arazoaren jatorriari heltzen ez diotela ulertu ondoren, larritasun-egoeretarako utz ditzakegu: biktimaren osotasuna benetan arriskuan dagoenerako. Baina, are kasu horietan ere, aldi baterako neurri gisa planteatu ditzakegu, eta kontuan izan behar dugu ez dutela egoera konpontuko.

Ezagutzen ditudan kasu askotan gertatu da ezen, hain justu ere egoerarik larrienetan, baita lehen

unean arrisku gorenekoak direnetan ere, kantzela-
zioekin gertatzen dena baino erreparazio eta eralda-
keta indibidual eta kolektibo handiagoa gertatu dela
denborak aurrera egin ahala. Azpimarratu behar da
kasu gehienetan egoerarik arineneko prozesuak di-
rela —hau da, gatazkaren eta parteetako baten ja-
rrera desatsegin edo gogaikarriaren arteko mugan
kokatzen direnak— gehien blokeatzen direnak, eta
horietan aurkitzen ditugula beren burua biktimatza-
jo duten eta prozesu eraldatzaileei erresistentzia
gehien erakusten dieten pertsonak, horietan eska-
tzen dela gehien mendekua eta ezein denbora-mu-
garik gabeko zigorra, horietan direla agerikoenak
subjektibitate apetatsu eta mindu horiek, ezgai di-
renak ulertzeko desadostasuna, komunitatearen
beharra... Ez da kasualitatea pribilegiarik handiene-
ko egoeretan dauden pertsonak izatea intentsitate
txikiko egoerak edo kalteen joan-etorri gutxi-asko
simetrikoko egoerak indarkeriatzat salatzen dituz-
tenak, eta ez da kasualitatea haiek izatea segurta-
sun-eskakizun handienak dituztenak, segurtasuna
ulertuz onura pertsonal gisa, edozein pertsona sala-
turen eta haren ingurune osoaren onuraren kaltetan.
Ez da kasualitatea ere pertsonarik dibergenteenak
eta baliabide pertsonal, ekonomiko, sozial... gutxie-
nekoak izatea gehien kakazten diren akusatuak eta

salaketetan ondoriorik okerrenak jasotzen dituztenak. Horretan zerikusia du koldarkeriaren ankerkeria orokortuak: kosta ahala kosta saihestea hurrengo izatea, ospea galtzea... Bada inoiz erortzen ez den jendea, nahiz eta beste batzuk baino askoz lehenago eroriak behar luketen. Eta hemen, hain justu, koldarkeria ez da onargarria.

Segurtasunari buruzko diskurtsoak, kantzeldazioak edo kaleratzeak justifikatu ohi dituztenak, absurdoaren muga daude; horregatik, mugimendu politiko gisa, kalte egiten diote gure barne-kulturari eta gure kanpo-sinesgarritasunari. Nola izango da espazio bat ez hain segurua eraso bat leporatu zaion pertsona bat hor dagoelako —eta ez naiz hasiko aztertzen duela zenbat gertatu zen eraso edo haren intentsitatea edo larritasuna—, baldin eta pertsona-talde bat hura zelatatzen ari bada eta, gainera, beligerantzia eta gaitzespena erakusten badiote? Onartezina da mugimenduek urte luzez kantzeldazioekin aurrera jarraitzea, haiek leheneratu gabe, pertsonen esan gabe «aizu, jada ez gaude haserre», are «beharbada okertu egin ginen», edo «kaka zahar bat zara, baina badakigu hala zarela, eta ez diozu hala izateari utziko bakartuago egoteagatik; beharbada errazago bermatuko dugu egoera hura ez errepikatzea baldin

eta partekatzen dugun testuinguruan esku hartu ba-
dezakegu».

Badira larritasun gutxi-askoko egoeraren bat jasan duten pertsonak, eskertuko luketenak bertan behe-
ra uztea kalte egin dieten pertsonak toki batera edo
bestera ez joatea justifikatzen duten betoak. Ikusten
dute behin eta berriro eztabaida bera pizten dela
eta berriz ere toki irrigarri batean jartzen dituztela;
espazio batek seguru izateari uzten dio han badela-
ko norbait egun batean beste norbaitekin gogaika-
rri jokatu zuena eta hari ukituak eta are intentsitate
handiagoko erasoak egin zizkiona. Uste dute kal-
tegarritzat jotako ekintza hura egin zuen pertsona
okertu egin zela beharbada, aldatu dela beharba-
da, damutu dela beharbada, edo ez, baina, edozein
kasutan, pertsona horrek ez duela inolako arriskurik
eragiten haren portaerari begira ehunka pertsona
heldu eta ustez ahaldundu dauden testuinguru ba-
tean. Eragindako eta inplikaturako emakume askok
ez dakite nola jokatu beto historiko eta zaharkituko
egoeretan, erreparaziorako eta eraldaketarako ba-
tere baliagarriak ez direnak, eta komunitateak egi-
ten dakien bakarra da harekin aurrera jarraitu. Hori
bidegabea da, etikoki onartezina, eta lotsagarria da
emakumeontzat.

Baina, jakina, egoera horiek desmuntatzeko, lehenik eta behin neoliberalismo patriarkal eta arrazistaren arrazionaltasun punitibistak eraikitzen ari diren subjektibitateetan esku hartu behar dugu. Justizia administratzeko eta gatazkak —edo are indarkeria-egoerak— konpontzeko beste modu batzuk zehazteko, ezinbestean diseinatu behar dira pertsona kalte-tua barne hartzen duten prozesuak, baina baita kaltea eragin duena eta komunitatea barne hartzen dutenak ere. Gaur egungo subjektibitateetan esentzializatu dira, batetik, biktimismoa, eta, bestetik, erreaktibotasuna eta indarkeria; subjektibitate horiek jardunbide biolentoak normalizatzen dituzte, hala nola kantzeldazioak, eta eragozten dute gaiari heltzeko bide osasungarriago eta emantzipatzaileagoetan pentsatzea.

Conflict is not abuse liburuaren gaztelaniazko edizioaren (*El conflicto no es abuso*) hitzaurrean, honako hau diote Nicolás Cuellok eta Diego del Valle:

Gatazka gaindimentsionatzeak, nagusitasun moralak eta harreman sozialak irudikatzeko erabiltzen dugun matrize neoliberalak eskaintzen duen sorgortasun axolagabe eta traumatikoak sortzen dituzten ondorio etengabeek alde batera uzten dute elkarrekin bizitzeko aukera oztopatzen

duen ankerkeria azaltzen duten egiturak ikusgarri bihurtzeko gai diren iritzi-truke sakonak egiteko aukera oro.

(H)

Sarah Schulmanek liburuan planteatzen duenez, baldin eta pertsona batek berari buruzko ideia bat jasotzen badu, berak bere buruaz duenarekin eta mantendu nahi duenarekin bat ez datorrena, orduantxe hautemango du, eskuarki, indarkeria maila handiagoan. Oraindik ere beharrezkoa da «nik sinesten dizut» esatea, baina, era berean, premiazkoa da ulertzea sentitzen duguna ez datorrela beti bat errealitatearekin; horregatik, zuk planteatzen dituzun gogoetak konplexuak bezain beharrezkoak dira, eta ariketa zail bat egitea eskatzen dute, alegia, okertu garela onartzea. Sarah Schulmanen lana irakurriz eta zurekin solastatuz ulertzen dut ezen, batzuetan, arrazoi batengatik sortzen dugula era-soak/abusuak jasan ditugulako kontakizuna, alegia, geure buruaz dugun irudiak ez digulako uzten onartzen hori baino konplexuagoa den errealitate bat; izan ere, beharbada ez gara gai izan «ez» esateko zerbait nahi izan ez dugunean, ez gara gai izan gure mugak argi eta garbi adierazteko, ez gara gai izan nahi edo behar genuena ematen ez digun harreman bat uzteko, ez genekien zer nahi genuen

baina gero ikusi genuen gure nahasmenduak guk gustuko ez dugun zerbaitetara eramán gintuela, iritziz aldatu dugu, edo zerbait interpretatu dugu eta ez gara gai horren aurrean erreakzionatzeko, nahiz eta gerora seinaleak jasotzen ditugun adierazten digutenak ez ginela ari egoera behar bezala ulertzen.

Gure komunitatean hauteman, onartu eta/edo indartu den —eta, are, instantzia publikoetan zabaldu den— eraso/abusu baten kontakizun gaindimentsionatu edo zalantzazko bat desmuntatzeko, gaur egun, adorea izan behar da, eta biktimek urrun sentitu ohi duten ariketa bat egin behar da, alegia, biktimek uko egin behar diete beren egoerak ematen dizkien pribilegioei. Epe laburretan, ulermenaren bidezko talka gertatu berri denean, errazagoa —eta eraginkorragoa— izan daiteke; baina denbora aurrrera doan heinean, eta kontakizunak gero eta zehatzagoak eta astunagoak bihurtu ahala, egoera gero eta korapilatsuagoa da inplikatu guztientzat. Epe luzera, eta feminismoarentzat azken urteak direnak zeharkatu ondoren —eta hau irakurtzen ari den oro interpelatuz, zeren, azkenean, guztiok egon gara nahasiak kantzeldazio- eta bazterketa-ekintzetan, eta jarrera desberdinetatik—, desmuntatu nahi baditu-

gu logika punitiboak, haiek hizkuntzaz egiten dituzten erabilerak eta haien operazio sozialak, ezinbestekoa dugu ulertzea uste genuen baino askoz onura gutxiago ekarri digun zaugarritasun/ahalduntze ardatz batetik eraiki dugula gure jarreraren eta bizitza feministari buruzko kontakizunen zati esanguratsu bat. Ez da hain erraza horiek deseraikitzea, are gutxiago denontzat neurri berean.

Trauma eta segurtasunik eza, askotan, jarrera emozionalki arduragabeen eta komunikazio-arazoen iturri izaten dira. Askotan pentsatzen dut biktimizazioaren kulturak hauskortasun-burbuila horiek indartzen dituela eta ez duela inondik ere bultzatzen aldaketa funtzionalagoak eta sendagarriagoak egitea... Uste dut garrantzitsua dela oinazea eta beldurra modu seguruan zeharkatzeko baldintzak izatea, baita horrek eskatzen dituen ordu ez-produktiboak ere, baina halaber iruditzen zait oso ohikoa dela zaugarritasun-toki horretara egokitzea, non arduratzetik salbuetsita egongo baikinake, besteak zaintzetik; are gehiago, badirudi okertzetik ere salbuetsita egongo ginatekeela. Eta desoreka hain konplexu horretatik gatazka asko sortzen dira, eta ez dakigu horiek kudeatzen. Batzuetan denborak sentsibilitatea eta ikuspuntu berriak ekartzen ditu, baina, beste

batzuetan, jarrera bakartu eta elkarren aurkakoak indartzen ditu.

(LM)

Segurtasunaren auzia aipatu duzunez, hasieran aterra dugun gai bati helduko diot berriro. Esan dugu zigorraren kulturak segurtasuntzat jo behar dugunaren ideia bat hegemonizatzen duela, baita beste ideia bat ere, alegia, zer rol duen subjektu bakoitzak segurtasunaren ideia horren aurrean. Ulertuz gero, esan bezala, segurtasunak esan nahi duela beste pertsona batzuen erasorik eza, batez ere gizonena, ulertu beharrean esan nahi duela elikatu ahal izatea modu orekatuan zure haurrak edo mendeko pertsonak, etxebizitza bat eskuratu ahal izatea edo kaleretik ibili ahal izatea inork egunero paperak eskatu gabe (gainera, kartzelan sartu eta berriz indarkeria, mehatxua, prekarietatea bizi izan dituzun herrialde batera kanporatua izateko arriskuarekin)... orduan ziurtzat jotzen da segurtasunaren ideia horren babesle nagusiak emakumeak eta pertsona feminizatuak izango direla, hala nola haurrak eta zaharrak, horiek izango baitira beti bide argiztatua hautatuko dutenak, ibilbiderik seguruena, polizia gehien duten kaleak, abiadura neurritsua. Aldiz, arriskua, abentura eta dibertimenduz hiltzeko aukera gizonentzat bai-

no ez dira. Gizontasuna, izan ere, arrisku-ekintzak egiteko gaitasunaren arabera izango da.

Arriskuaren eta segurtasunaren ikuskera horiek genero-identitate normatiboak berresten dituzte, eta genero-kategoria binarioetan sailkatutako pertsona guztiak homogeneizatzen, emakume gisa identifikatutako kolektiboaren zatirik pribilegiatuenaren beharretan eta pertzepzioetan oinarrituta. Eztaba-datzeko legoke emakume horiek guztiak seguruago sentitzen ote diren beren etxeetan, denek sentitzen ote duten poliziak babesten dituela, denek arriskua gorroto ote duten... Hara non feminismo ofizialaren segurtasun-aldarrikapen horiek auzo popularretako neska oso gazte eta ausartengan eragiten ari diren ondorioetako bat da feminismoa arbuiatzea, zeren iruditzen zaie horrek arriskuari uko egin beharreko toki batera bideratzen dituela, eta berak ez dira horrekin identifikatzen. Baita, ziur aski, badakitelako haientzat arriskutsuagoa dela emakume heldu, zuri eta burgesen segurtasun-jarraibideei kasu egitea, beren auzoetan geratzea baino, beren adiskideekin eta periferia ustez arriskutsuetako musikekin.

Bistan denez, gauza jakin batzuk egiteko, zigorren toki komunei aurre egiteko, agidanez feminismo

ofizial baten axioma direnei buru egiteko —hau da, biktimak axola bazaizkizu egon beharreko toki zuzen bakarra omen denari—, okerrak aitortu ahal izateko —baita kalte egin digutenean ere— edo zerbait urrutiegi eraman dugula aitortzeko ere, espazio seguruak eduki behar ditugu. Arazoa da segurtasunaren zer ikuskerarekin ari garen interaktuatzen.

Espazio seguruak behar ditugula diodanean, okertzen, aitortzen eta erreparatzen dutenekin amultsuki joka dezakedan espazioez ari naiz, non okerrak onar baititzakegu, non behar bezala erantzun baitieziaiekegu gure oinarrizko biziraupen-beharrei, non komunitateak zain edukiko baititugu inork kalte egiten digunean hara itzultzeko, non posible baitzaiagu gehiengoek desio ez dituzten gauzak desiratzea. Baina berriro diot: biktimaren tokira egokitzen diren eta toki horrek ematen dizkien pribilegioei uko egiteko prest ez dauden pertsonen buruz ari garenean, ez gara gauza berari buruz ari. Asko sentitzen dut: horrek zerikusia du ez bakarrik osasun mentalekin eta adierazpenerako espazio seguruak izatearekin. Uste dut biktimismo esentzializatu hori ohikoagoa dela subjektibitate burges dirudunen nartzisismo garaikidean, baliabideen eta espazio seguru eta komunitarioen gabezia baina. Nire ustez, begirada

desatsegin bat edo keinu sexual deseroso bat baino arazo larriagorik ez duten pertsona batzuen apeta nartzisistarekin du zerikusia, zeinek ez baitiete ezein komunitateri eutsi behar klasismoaren, arrazismoaren edo jazarpen politikoaren aurrean irauteko, adibide batzuk ematearren. Biktimismoa esentzializatzek jardunbide bortitzak normalizatzen ditu, baina baita, Méndez Cotak esana duen bezala, besterik gabe lotsagabeak diren jardunbideak, hala nola nahitako esajerazioa eta gezurra.²⁵ Horri ezin diogu itzuri egin analisi feministetatik, eta hori aitortu ahal izateak alboratu egiten ditu pertsona batzuek jarerra matxistetatik edo faxista hutsetatik horri buruz egiten dituzten interpretazio gaiztoak.

Beraz, bai; batzuetan, indarkeriaren biktima izan den pertsona batek beste bati eraso egiten edo min egiten amaitu dezake, ez soilik berari aurrez min egin dion hari, baizik eta prozesuak interpelatzen duen testuinguru, kolektibo edo erakunde osoari. Egia da ongi ez gaudenean kalte handia egin diezaiokegula geure inguruneari. Halere, ez da hori nire esperientzia nagusia. Nire esperientziarik ohikoena da kalte handiena eragiten dutenak eta egoera gehien korapilatzen dutenak ez direla hain zuzen inpaktu

25 Lehenago aipatutako testuan garatzen du.

handieneko indarkerien biktimak izan direnak edo prekariedade, eskubide-urraketa eta estigmatizazio handieneko egoeretan daudenak. Nire ustez, honako hauek dira, hain zuzen ere, konponbidea gehien blokeatzen dutenak eta beren inguruneak pozoitzen dituztenak: irabazi pertsonalak ateratzen dituztenak garrantzi txikiko egoerak handiestetik edo gatazka-egoerak eraso bihurtzetik.

5. Kasu instituzionalak

(H)

Kultura-erakundeen esparruan, non diskurtsorik bikainenak distirarazten baitituzte eta non praxiaren kontraesan asaldagarriek huts egiten baitigute, eraso-salaketen kudeaketa kezka handia eragiten ari da. Salaketak jada ez dira gertatzen soilik langileen, kolaboratzaileen eta uneko erabiltzaileen artean; horrez gain, batzuetan abisuak jasotzen dira munduko edozein lekutatik, kasu askotan anonimoak, eta lanean hasi berri diren pertsonen edo hastear daudenei egozten diete erasotzaileak izan direla iraganeko beste testuinguru batzuetan. #Metoo eta #SeAcabó era horretako salaketen metodo publikoak dira. Genera elkarteetan denbora daramazue erreakzio-protokoloen haragoko ekintza-planak

diseinatzen eta gauzatzen. Kontatu apur bat zein diren bi ereduen arteko desberdintasunak eta zer egiten duzuen.

(LM)

Jada azaldu ditut lanerako dugun ikuspuntuari buruzko kontu asko; izan ere, hemen transmititu nahi izan ditudan ezagutzak hogeitaz urteko militantzian eta lan profesionalizatuan ikasitakoak dira funtsean, baita genero-indarkerien ondorengo erreparazio- eta erreparazio-prozesuak laguntzen ibili naizen bitartean ere. Urte hauetan tresnak eta metodologiak diseinatzen aritu naiz, baina denboraren zati handi bat genero-indarkerien biktimak zuzenean artatzen igaro dut; bereziki, sexu-indarkerienak. Oro har, larritasun handiko kasuak artatu ditugu; testuinguru horietan, genero-indarkeria eskubide-urraketa eta prekariedade-multzo handi baten parte bat baino ez zen normalean, batzuetan ezta garrantzitsuena ere.

Horrenbestez, bidean ikasitakoetatik eta lan kolektibo horietatik, posible dugu esaten duguna defendatzea, eta posible dugu errealitatean esku hartzea egiten dugun modu zehatzean. Hain zuzen ere, Genera-n saiatzen ari gara praktika hori guztia hiru interbentzio-lerrotatik garatzen, hirurak ere oinarritz-

koak guretzat indarkeriei ikuspegi ez-esentzialista, interseksional eta eraldatzaileetatik heltzeko.

Alde batetik, hegemonia punitiboak gertatzen diren esparru kulturaletan eta testuinguruetan esku hartzen saiatzen gara. Eta, horretarako, honako hauek egiten ditugu: indarkeriaren eta haren inpaktuaren beste kontakizun batzuk bultzatu; emakumeen onberatasuna desentzializatu, baita sexualitateari buruzko balio patriarkalak ere; emakumeen transgresioak eta disidentzia sexualak ikusarazi; sexu-langileen borroka babestu; eta, jakina, sexu-lana lan gisa aitortzearen alde eta haren kriminalizazioaren aurka egin. Horiek guztiak funtsezko elementuak dira sentikortasun sexualaren naturalizazioaren, puritanismoaren eta subjektibitate femeninoen maneismoaren ondorioei aurre egiteko; subjektibitate horiek botere punitiboaren nagusitasunak eraikitzen ditu, eta, azkenean, berek ere boterea legitimatzen amaitzen dute.

Beste alde batetik, indarkeriak sortu eta errepikatzeko diren gaur egungo testuinguruetan esku hartzen dugu. Ildo horretan, berebiziko garrantzia du lagun egiteak edo akonpainamenduak, indarkerien biktimarik transgresoreenen eta ez hain normati-

boen eskubideak bermatzeko justizia-sistemetan, gizarte-babeserako sistemetan, osasun-sistemetan...; izan ere, diskriminazioari, babesgabetasunari eta are kriminalizazioari aurre egin behar izaten diete instituzio horietara joaten direnean babesa eskatzera edo, besterik gabe, herritarren oinarrizko eskubideak galdegitera. Ildo horren parte da orobat oinarrizko eskubideak —etxebizitza, errenta ez-baldintzatuak, herritartasun-eskubideak pertsona migratuentzat...— erabiltzeko bideak erraztu ditzatela eskatzeko egiten den lan guztia. Eskubide horiek guztiz ezinbestekoak dira, alde batetik, biktimak indarkeria handiagoen arriskupean jartzen dituen zaurgarritasun-egoera oneratzeko, eta, bestetik, haietatik hobeto errekuperatzen laguntzeko.

Azkenik, desiragarriaren espazioetan esku hartzen dugu, genero-indarkeriako kasuetan laguntzeko proiektuak eginez, indarkerien analisi intersektionaletik eta justizia eraldatzailearen metodologietan oinarrituz. Horri dagokionez, adibidez, *protokolo* kontzeptua baztertu dugu, eta orain sexu-askatasuna sustatzeko *planak* erabiltzen ditugu; horietan, indarkeria-egoerei heltzeko urratsak ezartzeaz gain, haiek prebeni ditzaketen baldintzak aldatuz ere esku hartzen da: botereen eta hierarkien banaketa-

ren analisia, botereen eta soldaten birbanaketa ekitatiboagoak, komunikazioa eta sentsibilizazioa, eta zigorraren hegemoniei itzuri egiten dien segurtasun-logika bat. Indarkeriaren osteko errekupeazio-prozesu indibidualetan laguntzeko, *biktima* onaren balioak desesentzializatuz lan egiten dugu, nagusiki izatez transgresoreak diren emakumeei eskaintzen diegulako laguntasuna: sexu-langileak, emakume arrazializatuak, migratuak, errekurtsoen egoera administratiboan eta prekarietate handiko egoeretan daudenak. Baina indarkeria erabili duten gizonekin ere esku hartzen dugu, edo beren portaera sexistak berrikusi eta maskulinitate hegemonikoaren deseraikuntza hobetu nahi dutenekin. Eta, batez ere, garrantzi handia ematen diogu esku-hartze komunitarioari, sexu-lanaren esparruan laguntza-taldeak eta lan-autodefentsarako taldeak sustatzeari eta komunitateei prestakuntza eskaintzeari, beren gatazkak eta indarkeria-egoerak kudeatzeko gai izan daitezen.

Funtsean, nire ustez, genero-indarkeriak prebenitzeko eta haietan esku hartzeko metodologiak diseinatu behar dira, hizpide izan ditugun printzipio guztiak praktikan jarriko dituztenak. Praktikari dagokionez, hauek dira kontuan hartu beharreko elemen-

tuak: errespetuz jokatu behar da indarkeria jasaten duten pertsonen prozesuekin; haien autonomia eta ekintza-gaitasuna sustatu behar da; kalte gutxien eragiten duten eta eraldatzaileenak diren bitartekoak aukeratu behar dira; biktimei erreparazio indibidual, kolektibo, estruktural eta materiala erdiesten lagundu behar zaie, alde batera utzi gabe komunitateak ahalduentzeko beharra, pertsona zaugarrienen eta transgresoreenen biziraupena bermatzeko. Bide hori ez da beti erraza, baina urte luzeetako esperientziak eta beste kide feminista batzuekin partekatutako jakintzek pentsarazten digute hori dela biderik eraginkorrena, etikoena eta jasagarriena.

(H)

Terrazako lagun-taldeak Rubiales kasuari buruz berbetan amaitu zuen, eta hori kultura-erakunde bateko zuzendari ezagunaren kasuarekin lotu zuten. Azken horrek emakume bat musukatu zuen hura bakarrik sentitzen ari zen une batean, eta email bat bidali zion beste emakume bati, hoguei urte gazteagoa hura, aurrez bere erakundeko bi ekitalditan pare bat aldiz agurtua zuena, zita bat eskatzeko. Botere-posizioak sedukziorako toki gisa aprobetxatzearen kontu hori berriz aztertzeaz harago, solasaldi hau bukatu nahi nuke berriz mikrora itzuliz, baita norberarengana

ere, erantzun egokia hautatzearen konplexutasunera. Maiz esaten dugu: erasoak/abusatuak/zapalduak izan diren pertsonak beren erasotzaileak hezteko ardura ez hartzeko eskubidea dute. Sarah Schulmanek elkarriketa defendatzen du erreparazio-metodo gisa. Haserrea, amorrua, deserosotasuna adierazteko eskubidea ere badago, baina baita hori zaurgarritasuneko eta botere-desorekako testuinguru batzuetan egiteko zailtasuna ere, eta zentzugabea da zure mugak edo elkarren arteko errespetu-kontu aurrez adieraziak etengabe gainditzen dituen norbaitekin solasaldi bat eduki nahi izatea. Gehitu diezaiozun horri erreparazioaren inguruko erantzukizun kolektiboa ere aipatu dugula; horrek rolak banatzeko aukera ekar lezake, kaltea bati bakarrik egin bazaio ere. Eta denboraren ikuspegia: fasekako erantzunak eta erreparazioak irudika ditzakegu, denak ez baitu zertan nahitaez baliagarria izan lehen unetik edo berehalako erantzun baten bidez. Pertsona gehienei korapilo bat egiten zaie, eta frustrazio handia eragiten die ideia horiek guztiak batera kudeatzeko gai ez izateak... Ikasi behar dugu atzera egiten, urrutiegi joan garela onartzen, okertu garela, iritziz aldatu garela... Berba egin behar dugu! Eta, egin ere, entzute zintzoan eta errespetuzko adierazpenean oinarritutako komunikazio-moduen bidez egin behar dugu.

(LM)

Oso garrantzitsua da indarkeriak eragiten duen zalaparta-maila txikitzea. Alarmaren eta larrialdiaren politikek izu- eta zalaparta-sentipena eragin dute, eta horiek ez dira onak prozesu hauetan laguntzeko. Hasteko, kontuan izan behar da indarkeria-egoe-
rek prozesu bat behar izaten dutela erresoluziora-
ko; agian denbora luzez gertatzen aritu den egoera baten berri izan dugu, eta ez da beharrezkoa orain, informazio hori iritsi zaigulako, asaldatu eta korrika hastea. Hori gure beharrizana da, baina ez beharba-
da bere egonezinaren berri eman digun pertsonare-
na, ezta jakinarazi digun egoerarena.

Beraz, zuk ondo esan bezala, eskura ditugun estra-
tegia guztiak ez dira erabilgarriak, eta ez dira balia-
garriak uneoro. Hasieran aktiba dezakeguna agian ezin izango dugu erabili aurrerago, eta, horregatik ere, kontuz ibili behar dugu sortzen ditugun espe-
tatibekin. Nire ustez, gure frustrazioa kudeatzeko ezintasuna oso gure garaiko arazo bat da, eta gehia-
go adierazten du gutaz prozesu baten zailtasunaz edo moteltasunaz baino. Ulertu behar dugu —eta hau oso garrantzitsua da— bizitza, erabakiak eta gertatuko denaren bilakaera erasandako pertsona-
ren araberakoa dela. Horrekin esan nahi dut, hain

zuzen ere, guk lagundu dezakegula, aholkatu, kolektiboki kudeatu eta baliabide emozional eta materialak eskaini. Baina pertsonak berak erabakiko du zer egiten duen horiekin, guk erabakiko dugun bezala aldezturik gure mugak jartzea, eta hor sartzen da, besteak beste, laguntzeko edo kudeatzeko abiatutako prozesutik irtetea, baldin eta ikusten badugu ezin dugula lagundu kolektiboki adostu bezala edo ez dugula etikoki onartzen egingo dena.

Baldin eta norbait ez badago prest hezteko edo ideia eraldatzaileak transmititzeko, doala bere etxera, ez dezala parte hartu eraldaketaren aldeko mugimenduetan. Edo har dezala tarte bat bere burua zaintzeko eta aurrerantzean politikoki parte hartzeko egoera eskasegian ez egoteko. Horrek ez du esan nahi ondo gaudenean soilik egon gaitezkeenik militantzia-espazioetan, edo horiek egonezinei leku egin ezin diezaieketenik, baina uste dut eskuen artetik ihes egin digula kontu honek, alegia, espazio horiek gatazka pertsonal, egonezin, oinaze eta pairamen partikular guztiak hartu behar izate horrek. Egia esan, aski onuragarria litzateke horri kasu egiteko egokiak diren espazioak bereizi ahal izatea, eta ikastea zalantzan jartzen arreta emozional partikular gehiegi eskatzen duten subjektibitateak. Hori esan-

da, ulertzen dut frustrazioa, eta ulertzen dut pedagogiak funtzio sozial gisa emakumeengan eragiten duen gainkarga eta exijentzia. Halaber, ulertzen dut, ezen, emakumeok gizon askoren hutsak ordaintzeari utziko bagenio eta berek konpondu behar balituzte, gauza asko aldatuko liratekeela funtzio sozialei eta gizonezkoen lizentziei dagokienez. Baina uste dut kasu hauetan beste gauza bat esaten dela. Esaten da antipunitibismotik esaten dugula biktimek beren erasotzaileak hezteko betebeharra dutela, baina inork ez die hori eskatzen. Jarrera aintipunitibisten irakurketa maltzurak dira horiek, asmo txarreko irakurketak, inoiz horrela erabili ez ditugun hitzak eta argudioak gure ahotan jartzen dituztenak. Hori dela eta, uste dut ez dela beharrezkoa haiekin hitz egitea, zeren eta elkarrizketaren bidea ez baitago irekia, soilik irainarena.

Halere, funtzio hezitzaile, pedagogiko eta eraldatzailea ez da kaltegarria inorentzat, eta, eskuarki, hori egin nahi ez dutenak edo horri uko egiten diotenak ez dira izaten biktimak —eta berriro diot, ez zaie horrelakorik exijitzen—; *biktima* kontzeptuaren hedagarritasuna erabiltzen duten pertsonak izaten dira, eta erabiltzen dutenak, hain zuzen ere, kolektibo edo gizarte-talde bateko edo besteko kide iza-

teko edo xede indibidual bat erdiesteko. Bestalde, prozesu hauetan proposatzen diren funtzioen parte bat baino ez da pedagogia. Pedagogiak ez du jendea berez aldarazten, aurrez egonezina eta indarke-riak eragiten dituzten egiturazko kausak aldatzen ez badira.

Azkenik, lehenago esan dugu ezinezkoa dela hitz egitea iraina tartean dagoenean edo elkarrizketara-ko bidea irekita ez dagoenean. Ez da beharrezkoa mundu guztiarekin berba egitea, eta mundu guz- tiak ez du gure denbora merezi. Horrek edozein egoeratarako balio du. Halere, horrek ez du esan nahi gatazkarekin, etsaigoarekin edo pertsona de- satseginekin bizitzeko gai ez garenik. Uste dut auzi handi bat datzala hor: hobetu behar dugu guztiare- kiko sentikor ez egoteko dugun gaitasuna, gatazka guztiak konpondu behar ditugula ez pentsatzekoa, mundu guztiarekin zoragarri konpondu behar du- gula, guztiari buruz berba egin behar dugula. Jarre- ra hori inozo samarra da, eta, gainera, espektatiba faltsuak sortzen ditu, ezinezkoa delako. Arriskuekin batera biziko garela ikastea eta etsaigoarekin edo atsegin ez ditugun pertsonekin batera biziko garela barneratzea urrats handia da matrize punitiboa de- seraikitzen hasteko...

HAMACA kultura-erakunde independente bat da, eta Espainiar estatuari lotutako ikus-entzunezko material experimentalaren erreferentziako artxiboa du osatua. Bere katalogoak kanal bakarreko praktika bideografiko experimental nabarmenenen historia biltzen du, 1960ko hamarkadaren amaieratik gaur artekoa. 2007an abiatu zen, komunitate artistikoaren ekimenez, Kataluniako Artista Bisualen Elkartearen bitartez (AAVC, Associació d'Artistes Visuals de Catalunya).

Estatuko eta nazioarteko erakundeekin eta eragileekin lankidetzan aritzeko sare baten bidez, programa publiko bat sortzen du, ardatz dituen komisariotza, bitartekaritza, ekoizpenerako laguntza eta inguru-nearen azterketa. Katalogoko ekoizpenak testuinguru kulturaletan, hezkuntzaren alorrekoetan eta izaera sozialekoetan zabaltzen dira; hala, ekarpen bat egiten zaio lan bideografikoen eta ingurune sozialen arteko elkarriketaren sustapenari, eta baliabide honek imajinario kolektiboak eraikitzeke tresna gisa duen balioa azpimarratzen da.

Banatzaille gisa, lan artistikoaren ordainsari bidezkoa babesten eta sustatzen du.

Irisgarritasunaren eta kultura librearen sustapenaren logika oinarri, funts osoa digitalizatuta dago, eta erabiltzailearen eskura. Kotsultarako eta ikerketarako erabil daiteke, hamacaonline.net plataformaren bidez.

Askotariko jardunen bidez, HAMACArene programek pentsamendua, ikaskuntza eta kontenplazio-esperientziak sustatzen dituzten bideo esperimentalaren inguruan.

Bestalde, HAMACAk emanaldiak, ikaskuntza eta ikerketa ardatz dituzten programak koordinatu eta proposatzen ditu, eta horietan parte hartzen du. Programa horiek era askotako publikoei zuzenduta daude, espezializatuenetatik orokorrenetaraino.

HAMACAk antolatzen dituen ekintzen zati handi baten helburua da erlazio bat ezartzea bi elementu hauen artean: batetik, artxiboa aktibatzeke metodo-logiak eta katalogoa; bestetik, gaur egungo larrialdi politikoak.

«Dimarts de vídeo» Santa Mònica zentroko programa audiobisual bat da, eta doako emanaldiak egiten ditu asteartero, 19:00etan, Sala Bar aretoan.

Programa horren komisariotza zenbait kolektiboren esku dago, aldizka gonbidatzen direnak. HAMACA da 2023an saioak programatu dituen kolektiboetako bat. Azaroaren 14ko saiorako, HAMACAk *[Gatazka]* eta *[Abusua]* ez dira gauza bera saioa proposatu zuen; *El jurado* (2012) filma eman zuen, Virginia García del Pino zuzendariarena, eta feminismo antipunitibistari buruzko solasaldi bat egin zuen Laura Macayarekin.

LAURA MACAYA militante feminista da, eta anti-punitibista, anarkosindikalista eta zigor-sistemaren abolizionista da. Arreta zuzena eskaintzen du, akon-painamendurako metodologiak diseinatzeko eta genero-indarkeriei ikuspegi interseksionaletik eta justizia errestitutiboaren ikuspuntutik heltzeko politika publikoak garatzen ditu. Halaber, bere ibilbide profesional eta militantearen zati handi bat sexu-lanaren eskubideak babesten eman du. Prentsa-artikulu ugari idatzi ditu, feminismo antipunitibistaren ikuspegiei buruzkoak, emakumeen arau-hauste moral eta sexualen aldarrikapenaren ingurukoak eta hiperregulazio sexualaren kontrakoak. *Esposas nefastas y otras aberraciones. El dispositivo jurídico como red de construcción de feminidad* liburuaren egilea da, Putas e Insumisas kolektiboan parte hartu du eta Bellaterra argitaletxearen *Alianzas rebeldes. Un feminismo más allá de la identidad* liburuaren koeditorea da. Gaur egun, Genera elkarteko kidea da; sexu-lanaren eskubideen alde lan egiten dute, eta sexu- eta genero-eskubide eta -askatasunak babesten dituzte.²⁶

26 *Ibid.*, 7.

